

Barrena

ASTRONOMIA

Abuztuaren 12ko eguzki-eklipsea ez da osorik ikusiko Debabarrenean

Aranzadi Zientzia Elkarteko Astronomia Saileko dibulgatzaile Virginia Garciak eguzki-eklipseari buruzko hitzaldia egin du Deban / 2



N.BEDIALAUNETA

EUSKARA

Euskararen kale erabilera egonkor mantendu da azken zortzi urteotan Elgoibarren / 10

KIROLA

Berihu Aregawi eta Winfred Yavi nagusitu dira Elgoibarko Nazioarteko Mugertza Krosean / 24

GIZARTEA

Debabarreneneko ESiren eskutik, Aurretiazko Borondateen gaineko tailerrak egiten hasi dira / 4

KIROLA

Ermua CD taldearen 75. urtemugako egitarauaren berri eman du Aitor Alvarez presidenteak / 25

27 obra taularatuko dituzte Eibarko Antzerki Jardunaldietan

Urtarrilaren 23tik martxoaren 27ra, izen handiko 23 antzerki-konpainiaren lanak ikusteko aukera izango da Eibarren / 26



Antzerki Jardunaldien aurkezpenaren irudi bat.
EGOITZ UNAMUNO

Unibertsitate Orientaziorako Azokak

EHUazoka
2026

DONOSTIA
Urtarrilak 31

VITORIA-GASTEIZ
Otsailak 7

BILBO
Otsailak 14

"Eskualdean eklipsea ez da osorik ikusiko"

VIRGINIA GARCIA PENA ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEKO ETA ESPAINIAKO ASTRONOMIA ELKARTEEN FEDERAZIOKO (FAAE) ZUZENDARITZA BATZORDEKO KIDEA Datozen urteetan hiru eguzki-eklipse izango dira. Aipagarriena abuztuaren 12an penintsulatik ikusi ahal izango dena izango da

Nerea Bedialauneta Alkorta DEBA

Eguzki-eklipse osoaren urtea izango da aurtengoa. Abuztuaren 12an, 20:30 inguruan, Ilargiak guztiz estaliko du Eguzkia, eta une horretan gauak bat-batean hartuko du zerua. Euskal Herriak ere eremu zabal batean ikusi ahal izango da; betiere, hodeirik ez badago, noski.

Virginia Garcia Pena (Donostia, 1979) Aranzadi Zientzia Elkarteko Astronomia Saileko dibulgatzailea eta Espainiako Astronomia Elkartearen Federazio (FAAE) zuzendaritza batzordeko kidea da. Duela gutxi, Debako Kultur Elkartearen izan zen, gaiari buruzko hitzaldia ematen, eta, azaldu zuenez, mende bat baino gehiago bada halako fenomeno astronomikorik ez zela hemen ikusten. Gertakari berezi horrek herritarren artean jakin-mina piztu du, eta, gaia aitzakia hartuta, Garcia Penarekin izan da BARRENA, eguzki-eklipsei eta horiei buruzko zalantzak argitzeko.

Abuztuaren 12an eguzki-eklipse bat ikusteko aukera izango da. Zerk egiten du berezi?

Aspaldiko partez –ehun urte baino gehiago–, eguzki-eklipse oso bat ikusteko aukera izango da; 1905ean izan zen azkena. Gipuzkoan, hain zuzen, osorik ez zen ikusgai izan, baina Burgoen eta inguruko lurraldeetan bai, eta, geroztik, esan dezakegu hau dela hurrengo eklipserik handiena.

Era simple eta laburrean azalduko al diguzu zer den eguzki-eklipse bat?

Ilargia ilberri fasean dagoenean eta, aldi berean, bere orbitaren nodo batetik –Lurraren orbitak eta Ilargiaren orbitak elkar ukitzen duten puntuak– pasatzen denean gertatzen da fenomenoak. Ilberriak hilerio izaten ditugu, baina ilberria nodoan oso gutxitan gertatzen da. Horixe gertatuko da, hain justu, hemendik gutxira. Izan ere, hiru astroak –Lurra, Ilargia eta Eguzkia– erabat lerrokatuta geldituko dira, eta, horrenbestez, Ilargiak proiektatzen duen itzala justu gure gainera eroriko da.

Osorik ikusiko da guretik?

Zenbait tokitan partziala izango da; ia-ia Eguzki osoa tapatuko da, %99,8 inguruan. Bestalde, Gipuzkoako hego-mendebaldean, Bizkaiko mendebaldean eta Araba osoan osorik ikusiko da. Eguzkia %100ean estaliko da, eta toki horietan Eguzkiaren korroa edo atmosfera deritzona –Eguzkiaren kanpoko geruza– ikusiko da. Hori, berez, eguzki-eklipse osoetan ikus daiteke. **Hemendik kanpo, penintsulako eta munduko zein beste tokitatik ikusiko da?**

Printzipioz, Groenlandian, Islandian eta, itsasoa zeharkatu ondoren, Iberiar penintsulan ere ikusiko da. Kontua da, ordea, Groenlandian eta Islandian zerua garbi egoteko aukera gutxi egon ohi dela, eta, beraz, egun horretan zerua estalita egoteko eta ezer ez ikusteko arriskua handia izan liteke. Eklipsea ikusi ahal izango den hurrengo lurraldea Iberiar penintsula izango da, eta, orduan, esan genezake mundu osoko jendea bertara etorriko dela fenomenoak ikustera.

Zer-nolako eragina izango du horrek guztiak turismoan?

Eremu oso txiki batera mundu osoko jendea etortzea espero da; alegia, jende mugimendu handia izango da. Toki fidagarriak diren lekuetan, adibidez, ostatu guztiak beteta daude aspalditik. Beraz, plana egiteko asmoa dutenei aurrez antolatzen hasteko aholkatzen diet. Gogorarazi behar

"Mundu osoko jendea bertara etorriko da fenomeno hori ikustera"

"Hasten denetik bukatu arte ia bi ordu iraungo du abuztuaren 12ko eklipseak"

da ez dela gomendagarria azken momentuan mugitzea; batez ere, trafikoagatik. Europatik jende asko etorriko dela uste da, eta, hortaz, trafiko handia egongo da. Egongo den jende pilaketa-gatik, batetik, eta iazko uda suteei dagokienez nolakoa izan zen kontuan hartuta, bestetik, erakunde batzuk kezkatuta daude. Gaztela inguruan, bereziki, abuztua oso lehorra izaten da, eta beldur handia dago jende pilaketa bada sor daitezkeen zaborrek eta abarrek ez ote dituzten suteak eragingo.

Penintsulari dagokionez, zein izan liteke tokirik egokiena?

Berez, Asturias izango litzateke egokiena; osotasunak gehien iraungo duen tokia izango da, minutu bat eta 50 segundo edo halako bat. Baina, noski, gure kostaldean bezala, Asturiasen ere lainoa egon daiteke; beraz, ez da oso toki gomendagarria. Hori jakinda, Leongo ingurua da tokirik egokiena; bertan ere nahiko luzea izango da, minutu bat eta 40 segundo ingurukoa. Horrez gain, Palentzian, Burgoen, Errioxan eta Nafarroako Erriberan ere ikusiko da.

Zeintzuk dira eguzki-eklipseaz gozatzeko gomendio orokorrak?

Ahal bada, toki altu batera joatea gomendatzen da, edo, bestela, mendebalderantz edo ipar-mendebalderantz orientatuta dagoen lekuren batera, behintzat. Zeru-ertza garbi ikusi behar da, eta, horregatik, komeni da inguruan mendiak, etxeak edo zuhaitzak ez egotea. Eklipsea 20:28 inguruan ikusiko da osorik; une horretan Eguzkia oso baxu egongo da, eta, tartean, trabarik badago, horrek Eguzkia estaliko du, eta eklipsea bera –Ilargiak Eguzkia nola estaltzen duen– galduko genuke.

Zenbat iraungo du, gutxi gorabehera, Euskal Herriatik ikusi ahal izango den eklipseak?

Hasten denetik bukatu arte ia bi ordu iraungo du. Berez, Ilargiaren eta Eguzkiaren arteko lehen kontaktua 19:30ean izango da. Osotasunaren maximoa, berriz, 20:28rako dago iragarrita. Azkenengo kontaktuaren mo-



Virginia Garcia Pena, Aranzadi Zientzia Elkarteko kidea. NEREA BEDIALAUNETA ALKORTA

mentu hori, baina, ez dugu ikusiko.

Zergatik?

Eguzkia mendebaldetik sartzen delako.

Bestalde, lehen aipatu duzu Asturiasen minutu bat eta 40 segundo inguru iraungo duela osotasunak. Deban eta inguruan denbora bera irautea aurreikusten da?

Adibidez, eskualdean ez da eklipsea osorik ikusiko; gutxi gorabehera, %99,89-edo ikusiko da. Baina, mendebalderago joanda,

osorik ikusi ahal izango da. Gipuzkoan, esaterako, Arrasaten eta inguru hartan osorik ikusiko da; 30 segundo inguru iraungo du.

Beraz, nondik ikusi ondo aukeratzeak badauka aldea.

Bai, noski. Hain justu, itzalaren muga Arrasatetik eta inguru haietatik pasatzen da. Izan ere, eguzki-eklipsea osorik ikusteko minutu erdi bat inguru soilik daukazu. Gaztela aldera joanda,



Abuztuaren 12an Iberiar penintsulan ikusi ahal izango den eguzki-eklipsearen errepresentazio bat. ESPAINIAKO GEOGRAFIKO INSTITUTU NAZIONALA

bestalde, minutu bat pasatxo irabazten da, baina, horretarako, leku optimoetara mugitu beharra dago.

Non egin daitezke kontsultak gure herrian ikusiko den eklipsea osoa ala partziala izango den jakiteko?

Xavier Jubierren (*xjbier.free.fr*) atarian, esaterako, eklipseak zenbat iraungo duen kontsultatu daiteke. Toki batean zeru-ertza garbi egongo den edo ez jakiteko, berriaz, *shademap.app* webgunea ere erabil daiteke. Gaiarekin lotuta, Espainiako Geografiako Institutu Nazionalak ere eklipseei buruzko atal bat ireki du astronomiaren atalean (*visualizadores.ign.es/eclipses*), eta bertan, hurrengo hiru urteetako eklipseei buruzko informazioa kontsulta daiteke.

Eguzki-eklipse bat ikusteko, zein segurtasun-neurri hartu behar dira derrigorrez?

Herritarrei gogoraziko nieke debekatuta dagoela Eguzkira zuzen begiratzea. Horretarako, filtroren bat erabili behar da. Norberarentzat erosoena eta, azkenean, merkeena, eklipsera-

ko betaurrekoak erabiltzea da. Betaurreko horiek Eguzkiaren argia blokeatzen duten azetato berezi bat daukate; erabat seguruak dira. Hortaz, eklipsea dagoen bitartean eta Eguzkirantz begiratu nahi dugun momentuan, betaurreko berezi horiekin begiratu behar da.

Azetatozko betaurreko horiez gain, beste ezer erabili daiteke?

Soldatzeko maskarak erabil daitezke. Horiek graduazio berezi bat izaten dute, eta, gutxienez, hamalagarrenetik gora izan behar dutela gomendatzen da.

Bestalde, bada eklipsea ikusteko beste modu seguru eta alternatiborik?

Proiektzioaren bitartez ere ikus daiteke eklipsea.

Eta nola egiten da hori, zehazki?

Adibidez, kartoi zati bat hartu dezakegu eta zulutxo bat egin. Behin hori eginda, kartoi zati hori Eguzkirantz orientatzen baldin badugu, zulutxo horretatik proiektatuko litzateke eklipsea. Hori bai, guztia begi bistara baino modu txikiagoan ikusiko genuke. Bestela, prisma-koak edo teleskopio bat

Eguzkirantz orientatzen badugu, betiere okularretik begiratu gabe –hori debekatuta dago–, gauza bera lortu genezake. Prisma-koak edo teleskopioa orientatzen ditugu Eguzkirantz, atzean jartzen dugu paper edo kartulina bat, eta mugitzen hasten gara aurrera eta atzera enfokatzeko edo fokua topatzeko, eta horrekin lortuko genuke irudi bat proiektatuta atzean jarri dugun paperean edo kartulinan. Eta hor bai, ikusiko genuke lehen aipatutako kasuan baino handiago, baina, noski, horretarako, teleskopio bat izan behar duzu eskura. Bestela, eklipsea teleskopiotik edo prisma-koetatik bertatik jarraitu nahi izanez gero, beharrezkoa izango litzateke horretarako berezia den filtro bat akoplatzea, baina gogoratu ezin dela inoiz zuzenean okularretik begiratu Eguzkirantz!

Hitzaldian, bestalde, eguzki-eklipsea ez dela bakarrik etorriko esan zenuen.

Abuztuaren 28an, gainera, ilargi-eklipse partziala ikusiko da. Eta, berez, hurrengo hiru urtee-

tan hainbat eklipse ikusteko aukera izango dugu; 2027an, esaterako, beste eguzki-eklipse bat egongo da, eta 2028an beste bat. Guretzako, baina, aurtengoa izango da zerua gehien ilundu-ko duena; hala ere, hurrengoetan ere nabarituko dugu argitasuna asko jaitsiko dela.

Noiz izango da 2027koa?

Abuztuaren 2an izango da, eta hori, berez, eklipse bezala askoz hobe izango da.

Zer zentzutan diozu hori?

Osotasuna askoz luzeagoa izango da. Hori bai, osotasuna penintsularen hegoaldean bakarrik ikusiko da: Cadiz, Malaga... inguru hartan. Tarifa inguruan, adibidez, osotasuna lau minutukoa izango da. Hemen ere, Euskal Herrian, ikusiko dugu argitasuna jaitsi egingo dela egun horretan; kasu horretan, baina, Eguzkiaren %74 inguru tapatuko da. Nire iritziz, datorren urtekoa XXI. mendeko eguzki-eklipserik onena izango da. Maximoa Egipton ikusiko da, Luxor inguruan, eta han osotasuna ia sei minutu eta erdi-

"Herritarrei gogoraziko nieke debekatuta dagoela Eguzkira zuzenean begiratzea"

"Nire iritziz, datorren urtekoa XXI. mendeko eguzki-eklipserik onena izango da"

koa izango da; oso eklipse luzea izango da.

Eta nolakoa izango da 2028koa?

Desberdina izango da. Hemendik ez da osorik ikusiko; izan ere, urtarrilaren 26koa ez da eklipse oso-oso izango, eraztun-itxurakoa izango da. Ilargiak ez du erabat tapatuko Eguzkiaren diskoa, eta Ilargiaren inguruan Eguzkiak sortutako suzko eraztun antzeko bat ikusiko da.



Raul Alvarez Celada erizaina, lanlekuan, asteartean. U.M.

"Pandemia ezkerro, asko handitu da Aurretiazko Borondateak egiteko joera"

RAUL ALVAREZ CELADA

DEBABARRENEKO ESIKO KOMUNITATEKO ERIZAINA

Aurretiazko Borondateei buruzko tailerrak egiten hasi da Raul Alvarez Celada erizaina

Ubane Madera Zangitu DEBABARRENA Abenduaz geroztik, Aurretiazko Borondateak zer diren eta zelan egiten diren azaltzeko tailerrak ari da egiten Debabarreneko ESI, Raul Alvarez Celada erizainak gidatuta. Aurretiazko Borondateen bidez, norberak adierazita lagatzen du, bere kabuz erabakitzeak gai ez den unerako, zer-nolako osasun-zainketa jaso edo baztertu nahi duen. **Zergatik hasi zarete orain tailer horiek egiten?**

Orain arte, Debabarreneko ESIk Eibarko anbulatorioan tramita-

tzen zituen Aurretiazko Borondateak egiteko dokumentuak, mediku-kontsulta bidez, baina itxarote-zerrenda handia zegoen. Hortaz, tailerrak antolatu ditugu, batetik, hori arintzeko. Eta, bestetik, gu udalerriz udalerrri ibiltzen gara, eta, elkarteekin eta Udalekin dugun komunikazioan, gai hori lantzeko interesa beti azaltzen delako; jende askok jakin nahi du Aurretiazko Borondateen funtzionamenduari eta tramitaziorako pausoei buruzko informazioa. Baina Aurretiazko Borondateak egite-

ko gauza batzuk kontuan hartu behar dira, eta horregatik egiten ditugu tailerrak.

Adibidez?

Paper asko dira, termino desberdinak dituzte, medikoak asko, dokumentuek baldintza jakinak bete behar dituzte... Informazio hori guztia eskuragai dago Eusko Jaurlaritzaren webgunean *-Euskadi.eus-*, baina, tailerren bitartez, herritarrei gaia gerturatzeko eta ezagutarazteak asko laguntzen du ezagutza handitzen. Bereziki, ahoz ahokoarekin. Adibidez, abenduko tailerrean, Eibarko anbulatorioko itxarote-zerrendakoei deitu genien lehenengo, eta gero, bestelako herritarrei ere zabaldu zitzaion aukera; segituan bete ziren tailerrak, eta, gainera, eskean ere etorri zen jende gehiago. Hori ikusita, gure ideia da aurtten hilean behin edo hil eta erdian behin tailer bat egitea, eskaeraren arabera. Orain arte, Eibarko ospitalean egin ditugu tailerrak, Mallabitik Mutrikurainoko bizilagunei zuzenduta, baina nahiko balitz udalerrri jakinen batean egin, eskatu egin liteke. **Tailerra bi zatitan dago banatuta; zergatik?**

Lehenengoa teorikoa da. Aurretiazko dokumentu bat dago Aurretiazko Borondateak adierazteko, eta, hori banatu, esplikatuta eta zelan bete behar den azaltzen da. Gero, dokumentu hori etxera eramaten dute, etxean lasai pentsatu eta bete dezaten, eta, azkenik, beste tailer bat

egiten da, betetako dokumentuak jaso eta errebisatzeko. Dena ondo badago, dagokien lekuetara bidaltzen dira.

Nora bidaltzen dira?

Batetik, Eusko Jaurlaritzak Gasteizen duen erregistrora; eta, bestetik, Madrilera. Madrilera bidaltzen da, norbere erkidegotik kanpo zerbait gertatuz gero, Estatuko gainerako erkidegoek ere izan dezaten norbere Aurretiazko Borondateen berri. Hain justu, Madrilera bidali behar denez, Aurretiazko Borondateen dokumentazioa euskaraz bete daitekeen arren, derrigorrez gaztelaniazko kopia bat ere egin beharra dago.

Zenbat denbora behar da indarrean sartzeko?

Dokumentazio guztia ondo badago, etxera iritsiko zaio dagokion pertsonari dokumentazio guztia eta hura ondo jaso den jakinarazpena. Batez beste, 5-6 hilabete irauten du prozesuak, eskaera handia baitago.

Zer eska daiteke Aurretiazko Borondateetan?

Ba, adibidez, mina eta sufrimendua arintzeko botikak hartu nahia, adieraz daiteke non nahi den bizitzako azken momentu horiek pasa *-etxean, ospitalean, egoitzan...*, eutanasiari buruz ere galdetzen da, hil ondorengorako nahiak zeintzuk diren *-organoak eman edo ez, autopsia egin edo ez...*. Sei orriko dokumentua da eta ondo azaldua dator; tailerrean, sortzen diren zalantzak argitzen dira.

Egin ondoren, aldatu egin daitezke?

Nahi denean aldatu daitezke, baina kontuan hartu behar da 5-6 hilabete behar direla berriro ere indarrean sartzeko.

Zelan ziurtatzen da Aurretiazko Borondateak bete egiten direla?

Aurretiazko Borondateak egiten badira, pertsona horri arreta emango dion zerbitzu medikuari azaldu egingo zaio informazio hori. Edozein kasutan, Aurretiazko Borondateak egiten dituen pertsonak bere inguru hurbilekoari jakinarazi behar dio egin dituela. Bestalde, Aurretiazko Borondateak egin dituen pertsona horren ordezkari ere izendatu daiteke, zalantzaren bat sortuz gero ordezkatuaren izenean haren borondatea betetzen dela ziurtatuko duena. Ordezkaria izendatzea ez da derrigorrezkoa, baina bai gomendagarria. Horretarako ere badago egindako dokumentu bat. Gehienez jota, hiru ordezkari izenda

daitezke, eta ordezkariak ordezkarietarako bere onespina emateko dokumentua sinatu behar dute.

Gaur-gaurkoz, zenbatek dituzte Aurretiazko Borondateak eginda?

2004an hasi zen Aurretiazko Borondateak egiteko bidea, eta, 2025eko datuen arabera, EAEn 11.782 pertsonak egin dituzte. Horietatik, gipuzkoarrak 3.586 dira. Pandemia ezkerro, asko handitu da Aurretiazko Borondateak egiteko joera. Han antzeman zen jendearen kontzientziazioa handitu egin zela. Harrezkero, eskaera handitzen doa.

Zein da egileen profila?

Gehienak 45-65 urte bitartekoak dira, eta gero, 65-75 urte bitartekoak. Eta, batez ere, emakumeak dira. Baina garrantzitsua da egitea, bizitzako azken momentuan jaso nahi dugun tratua eta nahi dugun heriotza-mota adierazten baita. Eta guztiok pasatu behar dugu hortik.

Tailerren bitartez bakarrik egin daitezke Aurretiazko Borondateak?

Ez. Egin daitezke lehen arretako *-anbulatorioko-* medikuaren edo erizainaren bitartez. Kasu horretan, hiru lekuko behar ditu eskatzaileak. Notario bitartez ere egin daiteke, eta tailerrean. Azken horietan, tailerrean, ez da lekukorik behar, tailerra ematen duen pertsona, kasu honetan neu, Aurretiazko Borondateak egiteko gaitu egin nautelako. Hau da, nik neuk ziurtatzen dut entregatutako guztia ondo dagoela.

Tailerra Eibar ez den beste herri batean egiteko, zer egin behar da?

Eskatzairekin nahikoa da. Eska daiteke hemen, Eibarko ospitalean, edo eska daiteke norbere herriko anbulatorioko mediku edo erizain baten bitartez.

"Eibarko ospitalean egin dira tailerrak, baina eska daiteke beste edozein herritan egiteko"

"Gaur egun, EAEn 11.782 pertsonak dituzte Aurretiazko Borondateak eginda"

Ernai gazte antolakundeak Independentzia Eguna antolatu du urtarrilaren 31rako

Eskualde mailako jaialdia Deban ospatuko dute, egun osoko egitarauarekin

Izaro Aulestiarte DEBA

Independentziaren aldeko aldarria lehen lerrora ekarriko du Debabarreneko Ernaik urtarrilaren 31n, larunbatez. Eskualde mailako jaialdia egingo du Deban eta egun osoko ekitaldi sorta iragarri du. Hitzaldia, bazkaria, karro-poteoa eta musika kontzertuak izango dira egitarauan.

Irati Azpilikuetak azaldu duenez, "aurten jaialdiak formatu zabalagoa izango du lehen aldiz; eguna gazte mugimenduen aldarria kalera ateratzeko eta gure komunitateari topagune sendo bat eskaintzeko aukera bezala ulertzen dugulako". Horiek horrela, euren aldarria "modu zabalean sozializatu eta gazteok elkarrekin egoteko, eztabaidatzeko eta antolatzeke espazioak" sortu nahi dituztela aipatu du.

Gazte antolakundearen esanetan, hain zuzen, azken boladan



areagotu egin dira jarrera erreakzionarioak: "Horrenbestez, gazteok gure posizio politikoa modu publiko eta irmoan adieraztea inoiz baino beharrezkoagoa da". Hauxe nabarmendu dute: "Gure ikuspegitik, estatu independen-

te, feminista eta sozialista baten beharra gero eta ageriagoa da. Horregatik, gure belaunaldiak herri honen etorkizun politiko eta sozialaren alde lanean jarraitzeko dugun konpromisoa berresten dugu".

Ekinez Egina, gazteok independentziara lelopean abian jarritako dinamikaren bitartez, gazteek prozesu politikoan duten "paper aktiboa" azpimarratu nahi du Ernaik. "Ez gara ikusle: gure egunerokoan eta antolakuntzan egindako lanak egiten du posible etorkizun berri baten eraikuntza", erantsi dute gazteek.

"Espazio irekia"

Independentzia Egunean gazteen arteko topaketarako "espazio ireki" bat sortu nahi dutela adierazi du Azpilikuetak: "Elkar ezagutzeko, hausnarketarako, jardun politikorako eta kultur adierazpenerako gune bat. Horregatik aukeratu dugu Deba, herri giroa eta herrikoia uztartzeko moduko tokia delako".

Bada, azpimarratu du urtarrilaren 31koa ez dela hitzordu politiko huts bat izango eta ekimenarekin bat egiteko dei egin die eskualdeko gazteei. Haren esanetan, "gazteria antolatzeke, harremanak estutzeke eta etorkizunerako bide bat kolektiboki marrazteke unea izango da. Egun batez, Deba bihurtuko da Debabarreneko gazteriarren topaleku eta aldarrikapen gune".

Egitaraua

- **12:00 Hitzaldia:** *Independentziaren borroka historian zehar: subjektibitate kolektibotasunera.* Hizlariak: Itziar Aizpurua –ezker abertzaleko militantea–, Maider Lazkano –Sortuko kidea– eta Haritz Rekondo –Ernaiko kidea–. Ispiluen gelan.
- **14:30 Bazkaria** **Arranon.** Prezioa: 10 euro –8 euro ikasleek eta langabeek–. Salmenta-puntuak: Eibar –Depor–, Ermua –Infreñu–, Elgoibar –Txillarre ekodenda–, Deba –Ieraenea ekodenda–, Itziar –Burugorri–, Mutriku –Zubixa–.

Bazkalostea

- **19:30 Karro-poteoa.**
- **22:30 Kontzertuak** Begibide / Ginka Biloba DJ Berbi. Gaztetxean.

Faxismoaren eta estatuen autoritarismoaren aurka mobilizatzeko dei egin du GKS

Debabarrenetik autobusa izango da, eta trenez eta autoetan joateko aukera ere bai

Ubane Madera Zangitu DEBABARRENA

Gazte Koordinadora Sozialistak (GKS) manifestazioak antolatu ditu urtarrilaren 31rako, *Faxismoaren eta estatuen autoritarismoaren kontra* lelopean, Bilbon –18:00etan, Jesusen Bihotzean– eta Iruñean –18:30ean, Erorien Monumentuan–.

Goraka egiten ari den "faxismoari, mezu erreakzionarioei eta estatuen autoritarismoari aurre egiteko indar erakustaldia" egin nahi dute mobilizazio horien bitartez, eta bertaratzeko hainbat modu izango dira Debabarrenetik.

Batetik, Bilbora joateko autobusa antolatuko dute eskualdetik. Debatik irtengo da, 15:45ean, eta Mendaron –15:55ean– eta Elgoibarren –16:00etan– egingo ditu geldialdiak. Itzulera 21:00etan izango da eta prezioa 2 euro da. Izena emateko, *whatsapp* bat



GKSren ekitaldia Deban. GKS



GKSren ekitaldia Ermuan. GKS

idatzi behar da 688 65 44 20 telefonora.

Bestetik, autobusa beteko baltz, autoak gehituko lituzkete. Eta azkenik, Ermutik eta Eibar-tik trenez ere joango dira gazteak Bilbora.

Deban, Eibarren, Elgoibarren...

GKSko kideak Euskal Herri osoan ari dira mobilizazioak aurkeztu, arrazoia azaldu eta bertaratzeko dei egiteko ekitaldiak egiten, ikastetxeetan eta herriz herri, baita Debabarrenean ere. Azken

ekitaldia Soraluzen egin zuten, urtarrilaren 16an. Eta Debabarreneko GKSkoek esan dutenez, Itziarren, Deban, Mendaron, Elgoibarren, Eibarren, Ermuan eta Mutriku ere izan dira: "Denetarik egin dugu. Batzuetan dinamika parte-hartzailearekin, esperientziak partekatuz, herrien egoerak aztertuz, eta aztertuz, baita ere, ikusten ari diren jarrera erreakzionarioen gorakada".

Gerra giroa

Soraluzeko ekitaldian esplikatu zuten, faxismoaren eta autoritarismoaren gorakada kapitalismoa pairatzen ari den krisiaren ondorio dira. 70eko hamarkadatik aurrera "ongi-zate-estatuaren eta bake sozialaren bidez gobernatzeke gai izan den kapitalismoa krisi egoera betean dago. Orain, ez da gobernatzeke gai langileen eskubide politikoak bermatuz. Horren erakusle da gizartearen gertatzen ari den pobrezia prozesua, naturaren ustiaketa basatia eta ia munduko txoko guztietan zabaltzen ari den gerra giroa".

Krisi testuinguru horretan, "kapitalismoa bere aurpegi

bortitzena erakusten ari da", besteak beste, "geroago eta eskubide politiko gutxiago –mortal legea, *antifa* mugimendua ilegalizatzeko saiakerak–, poliziaren presentzia eta inpunitatearen gorakada eta militarizazio prozesua –aurrekontu militarren gorakada– bizitzen ari gara", adierazi zuten.

Kapitalismoa, krisian

Halaber, ohartarazi zuten, krisi egoera baliatuta alternatiba moduan aurkeztu dira faxistak, "euren burua antisistema moduan aurkeztu dute, ideia erreakzionarioekin, mezu matxistekin eta arrazistekin; adibidez, gertatzen ari denaren erru guztia pertsona migranteengan jarrit".

"Etorkinak egiten dituzte etxebizitza gabeziaren erantzule, eta ez espekulazioa helburu duten hogeitxetarik gorako etxe-jabeak edo putre-funtsak. Era berean, etorkinak egiten dituzte soldata baxuen erantzule, eta ez soldadak ezartzen dituzten enpresariak. Etorkinak ez dituzte pertsona moduan ikusten, ezta subjektu politiko moduan ere".

NIRE USTEZ

Eraso arruntegiak



BEGOÑA FERNANDEZ ALCALDE
EKINTZAILE FEMINISTA

Misoginia eta feminismoaren aurkako aktibismoa oso presente daude matxosferan, nerabeak arrainak uretan bezala mugitzen diren ingurune digital berean. Hain zuzen ere, familia *normaletako* nerabeak protagonistak dira saritutako telesail hauetan: *Adolescence* (Erresuma Batua) eta *Pubertat* (Katalunia). Kapitulu gutxitan errealtate gordinak erakusten dizkigute, hurbiletik interpelatuz: 13 edo 14 urteko mutil bat, demagun zure semea, sexu-erasotzailea izan daiteke, edota hiltzaile matxista ere bai? Barrutik astintzen zaitu, ezta?

"Ez, ez, ezin da, gaizki-ulertu bat izan behar du, umekeria, mutil ona da, ez luke inoiz horrelakorik egingo". Zoritxarrez, telesail horiek benetako gertakarietan oinarrituta daude eta jakin badakigu errealtate fikzioa baino haratago doala. Ukazioak, etsipenak, tristurak, erruak ito egingo dituzte telesailetakoko pertsonaiak; gauza bera gertatzen da errealtatean. Zer kontraesan, zer gatazka pertsonal, familiar eta generazional azaleratuko dira horrelako eraso

matxista batek hain hurbiletik ukitzen zaituenean?

"Ukazioak, etsipenak, tristurak, erruak ito egingo dituzte telesailetakoko pertsonaiak; gauza bera gertatzen da errealtatean"

Agian, komeni da gogoratzea mundu errealean gertatzen diren eraso matxista gehienek telesailetakoko bezalako protagonistak dituztela: guraso arruntak, neska eta mutil arruntak, familia arruntak, irakasle, lagun, elkarteko kide arruntak.

Telesail hauek familia eta gizartearen erantzukizunari eta sare sozialen eraginari buruzko galderak planteatzen dituzte. Ezagutzen ditut beren seme-alabekin telesaila ikustera jarri diren gurasoak, nerabeei helduarora bidaia horretan orientatzeko eta laguntzeko asmoz. Nire ustez, guk helduok ere asko dugu ikasteko. Azal diezaiegun nerabeei zer den, adibidez, sexu-harremanetarako benetako *adostasuna*, ez sozializazio patriarkalak, desberdintasunek edo indarkeriak inposatuak. Desioak identifikatzen eta komunikatzen ikasi beharra ere badago, eta nesken desioa ez dagoela mutilenaren mende. Beharrezko aldaketa soziala lortzen dugun bitartean, erakuts diezaiegun neskei borrokaren eta autodefentsa feministaren garrantzia.

GUTUNAK

Eskerrik asko!

ELGOIBAR IKASTOLAKO TXOSNAKO BATZORDEA
ELGOIBAR

Giro bikainean eman genion amaiera urteari. Gabon zaharretan hainbat postu, jendea non-nahi, eta, animalien faltan, bertako jeneroaz gozatzeko aukera aparta izan genuen...

Eguraldia lagun genuela, sortu zen giroa itzela izan zen. Oso pozik gaude egindako lanarekin, eta eskerrak emateko garaia iritsi zaigu.

Eskerrik asko Elgoibarko Udalari, Debemen Landa Garapen Elkarteari eta brigadako langileei, hainbat baliabide eskaintzeagatik; eskerrik asko Eizagirre eta Doña Mercedes okindegiei; Eusko Labeldun saiheskia eskaintzeagatik eskerrak Patxi eta Ziarda harategiei eta, bereziki, Armueta harategiari, egunean zehar eskaintako laguntzagatik; Manuel Amarori, kamioia eskuragarri jarri eta egunean bertan egindako lanagatik; Deuko Izarrari, edariak zein beste material batzuk eskaini eta lana errazteagatik; Lizagasarri, bere sagardogatik eta sagar-muztioagatik; Nekane Altuberi, apaingarriagatik; Jose Ramon Cabrerari, argazkiengatik; Burgoa Somoza arrandegiari, izotza emateagatik; lanean egon zineten guztioi eta, nola ez, mila esker egunean bertan gerturatu zineten guztioi. Zuek gabe giroa ez dago eta.

Aurten ere, 100 pertsona inguru izan gara antolaketa eta lanean aritu garen

ikastolako guraso eta langileak. Esker mila eta bejondeizuela! Bere izaerari jarraituz: herritik, herriarentzat.

Ingurumena babesten jarrai dezagun!

Z.A.
ELGOIBAR

Aiaraldeko Mendiak Bizirik plataformak Ferosca zentral eolikoaren espedientea eta tramitazioa legalki gelditu behar dela adierazi du. Aiarako aerosorgailuen eraikuntza ukatu eta gero, proiektua erabat aldatu da eta Laudiori soilik eragiten dio.

Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Sailak argi eta garbi adierazi zuen egitasmoko hiru aerosorgailu ezin direla eraiki bioaniztasunean sortu ditzaketen kalteen ondorioz.

Eusko Jaurlaritzak proiektuaren aerosorgailu erdiari eraikuntza baimena ukatu eta gero, egitasmok aldaketa nabarmenak izango ditu, eta, ondorioz, administrazioak ezin du aurrera egin, ezer gertatu izan ez balitz bezala.

Taldeak juridikoki egoera sostengaezina dela azpimarratu du, zentral eolikia murriztea, benetako kokapena aldatzea eta udalaz gaidiko izaera desagertzea proiektuaren funtsezko aldaketa baitira. Ondorioz, legalki, prozedura berria abiatu beharko litzateke eta Aldundiak Plan Berezia eten. Beraz, irizpide legalek bidea markatzen dute eta horretan

legea argia da: proiektu batek lurralde eta ingurumen-funtsa aldatzen duenean, beste prozedura oso bati ekin behar zaio.

Plataformak ohartarazi du proiektuaren tramitazioa Laudioko Udalaren esku geratuko litzatekeela, eta tokiko erakundeak jadanik adierazi du ez dituela hirigintza arauak betetzen.

Ingurumena babesten jarrai dezagun! Ferosca zentral eolikia stop!

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). BARRENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Aita Agirre Kulturgunea 3-3, 20870 Elgoibar / barrena@barrena.eus

Barrena[®]
DEBABARRENEKO KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea
Barrena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Aita Agirre plaza, 3
20870 Elgoibar
barrena@barrena.eus

Lehendakaria
Gaizka Azkarate.
Zuzendari nagusia
Egoitz Unamuno.
Eduki arduraduna
Ainara Argoitia.
Erredakzio batzordea
Ainara Argoitia, Ubane Madera, Ainhoa Andonegi, Dorleta Vidal, Izaro Aulestiarte.

Diseinu arduraduna
Oier Larreategi.
Zuzentzailea
Sergio Azkarate.
Kidetz eta banaketa arduraduna
Alex Turillas.
Maketazioa
Zalao Arnaiz, Oier Larreategi.
Publikitate
Leire Rubio.

HARPIDETZA
Elgoibar 20870
Aita Agirre plaza, 3
Tel.: 943 74 16 26
harpidetza@barrena.eus

PUBLIZITATEA
Elgoibar 20870
Aita Agirre plaza, 3
Tel.: 943 74 16 26
publi@barrena.eus

DEBAKO EGOITZA
Deba 20820
Ifar Kalea 12, behea
Tel.: 943 19 13 83

ELGOIBARKO EGOITZA
Elgoibar 20870
Aita Agirre plaza, 3
Tel.: 943 74 41 12

ERMUKO EGOITZA
Ermua 48260
Erdikokale 2, 1
Tel.: 943 17 93 50

SORALUZEKO EGOITZA
Soraluze 20590
Errabal 15, 1
Tel.: 943 75 13 04

Lege Gordailua: LG D 993-2025
ISSN: 3101-2647
Tirada: 10.000 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

BARRENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK



Debako Udala



Elgoibarko Udala



Ermuko Udala



Mallabiko Udala



Mendaroko Udala



Mutrikuko Udala



Soraluzeko Udala



NONDIK NORA

"Frogatuta daukat euskara jakiteak lan-mundurako atek zabaltzen dituela"

VIRGILIO GUANO LAGUAQUIZA EKUADORTIK MENDARORA IRITSITAKOA

Ainara Argoitia MENDARO

1983an, hain justu Mendaro herri egin zen urtean, jaio zen Virgilio Guano, Ekuadorren, Chambapongo eskualdeko Sacedo herrixkan, eta 19 urte zituela iritsi zen Euskal Herrira, 2002an. Lau urte geroago iritsi zen haren emazte Marcia Plascencia, eta, geroztik, Mendaron bizi dira, erabat bertakotuta. 17 eta 11 urteko bi seme-alabaren guraso dira, eta "ezin pozago" bizi direla diote.

Zerk ekarri zintuen hona?

Patuak, ziurrenik. Bost senide gara etxean, eta handikeriarik gabe bizi ginen, baina premia larririk ere ez geneukan. Hala ere, emigratzeko nahia sartu zitzaidan, eta, hemen osaba bat nuenez, probatzea erabaki nuen. Haren etxera etorri nintzen, eta haren babesean hasi nuen hemen bizimodua. Etorri berritan, Zarautzen topatu nuen lana, bi asterako lehenengo, eta urtebeterako gero, sukaldari-laguntzaile. Handik Debara etorri nintzen bizitzera, eta Deban egin nituen lau urte. Hasiera gogorra izan zen, beti izango dira, ziurrenik, baina ez nuen ohitu beste aukerarik izan. Orain, gure iloba etorri da gurera, ni osabarenera etorri nintzen moduan, eta gure lagun handi batek eman dio lana. Askok estimatzen diot.

Nola hartu zintuzten hemen?

Oso ondo. Zortekoa izan naiz. Dena den, iruditzen zait euskal herritarrok ondo hartu ohi du-

zuela kanpotik datorrena; bētie-
re, langilea eta apala bada. Nik
beti esan izan dut doan lekura
moldatu behar duela pertsonak,
eta errespetatu egin behar due-
la han dutena, euren kultura
eta ohiturak, norberarena aha-
zu gabe, jakina. Hori eginez gero,
arrakasta segurua da hemen.

Zu zeu, behintzat, estimatzen zaituzte mendaroarrenak, bai.

Neuk ere bai eurak. Lagun handiak egin ditut hemen, bizimodua erraztu didatenak. Inguruan lagun-sare bat izatea gauza handia da, ez baita erraza kanpotik iritsi eta hemen bizimodua egitea. Begira, konturatuta nago euskaldunok asko eskertzen duzuela euskaraz egiteko ahalgina ere. Nik ulertu dezente ulertzen dut, baina hitz egitea kosta egiten zait. Dena den, saiatzen naiz dakidan apurra egiten, eta ikusten dut asko estimatzen duzuela. Iaz, euskaltegian eman nuen izena. Kontua da iritsi eta bat zaila dela euskaltegian izena ematea, lehentasun handiagoak izaten ditugulako. Baina nik frogatuta daukat euskara ikasteak lan-mundurako ateak ere zabaltzen dituela. Azkeneko bost urteetan Urkunde enpresan dihardut lanean, eta Txirristaka tabernan ere ibiltzen naiz, zerbitzari. Nire lagun handi baten koinatua da jabea, Juanjo Loiola, eta harreman ona egin dut harekin. Jaietan omenaldia egin zioten herriko gazteek, eta hungigarria izan zen. Kamiseta oparitu zidaten neuri ere, eta

jai haren parte sentitzea polita izan zen. Asko ikasi dut barra atzean herriaz, herriko jendeaz, hemengo kulturaz, eta lagun asko egiteko bidea eman dit.

**Hemen osatu zenuten familia. Non-
darra sentitzen zara gehiago?**

Nik neuk harro esaten dut ekua-dortarra naizela, baina izugarri pozik bizi naizela hemen eta ez nukeela Mendaro ezerekin aldatuko. Nire seme-alaba biak hemen jaioak dira, eta haiek euskal herritartzat dute beren burua, hala direlako. Hiru aldiz bidaiatu dugu sorterrira, eta hilabete egin izan dugu han joan garenetan. Hila-bete denbora da, baina ez da ezer hango kultura eta ohiturak eza-gutzeko. Horrek pena ere ematen dii. Horrek eta ikusteak zenbat gaiztotu den giroa han eta Lati-noamerika osoan, bereziki nar-kotrafikoagatik eta delinkuen-tziagatik. Senideak ezagutzen dituzte haurrek, baina hara ego-kitzeko egiteko denbora gehiago behar da. Guk etxean beti hitz egin izan diegu sorterriaz, gure ohiturez, gure kultura indigenaz, gure ume sasoiak, senideez eta abar. Iruditzen zait hori garran-tziatsua dela, jakitea norbera non-dik datorren eta harro sentitzea.

**"Euskal herritarrok
ondo hartu ohi
duzue kanpotik
datorrena, langilea
eta apala bada"**



Marcia Plasencia eta Virgilio Guano senar-emazteak. Garagartzan. A. ARGOITIA

Hizkuntza aipatu duzu. Zein hizkuntza da zuena?

Gure hizkuntza kitxua da, baina, zoritxarrez, gero eta hiztun gutxiago dauzka. Eskolan gaztelaniaz egiten genuen, eta kitxua, etxean eta lagun giroan. Amerika konkistatu zuten europarrek min handia egin ziguten horri dagokionez. Badugu antzekotasunik zuek eta guk.

Zer gustatzen zaizu gehien Mendarotik?

Aizpe elkarte (Kar-kar). Esango nizuke Euskal Herriatik eta Mendarotik gehien gustatzen zaidana jendea, gastronomia, paisaia eta kirolerako dagoen zaletasuna direla. Zarautz, Lekeitio, Donostia, Bilbo, Gaztelugatxe eta abar. Izugarri leku politak daude hemen.


Zer antzekotasun du Ekuadorrek Euskal Herriarekin? Eta zure sor-lekuak Mendarorekin?

Paisaia aldetik antzekoak dira: menditsua eta berdea. 11.000 biztanleko Chambapongo komunitatekoa naiz ni, 600 biztanleko herrixka batekoa, Sascedokoa. Lurra lantzetik bizi dira han gehienak. Mendira, baina, hemen zaletu naiz, lagun kirolariak ditudalako. Kilimon Trail mendit lasterketa daukat orain begiz jota, gomendagarria oso. Ilobarekin egin nahi nuke.

Harrera-plana diseinatzeko ari da gaur egun Mendaroko Udala. Zer iruditzen zaizkizu halako ekimenak?

Oso komenigarriak. Inportantea da jakitea nora iritsi zaren, zer zerbitzu daukazun herrian, zer elkarte... Ni neu Espainiara nentorrelakoan etorri nintzen, eta hemen jakin nuen Euskal Herria ere bazela eta bazenutela beste kultura bat eta beste hizkuntza bat.

TXOKOTIK ZABALERA

UNAI GAZTELUMENDI

Barrena⁺

BATZEN GAITUENA

egin zaitez
Barrenakide!
barrena.eus/egin-kide

📌 **kidetza digitala**

30 euro urtean

- ⚡ **Barrena komunikazio proiektua indartzen laguntzen duzu.**
- 📄 Papereko argitalpenak **digitalki eskuragarri** izango dituzu (PDF formatuan).
- 🎲 Hilero antolatutako **zozketetan** parte hartu ahalko duzu: jaki-otarreak, ikuskizunetarako sarrerak eta askoz gehiago!
- 📌 Barrenak antolatutako **ekitaldietan** parte hartzeko aukera izango duzu.
- 📷 **Argazkiak eta bideoak deskargatu** ahal izango dituzu, kalitate altuan eta ur-marka gabe.
- 📄 **Barrenakide txartel digitala.**

📌 **kidetza pertsonala**

60 euro urtean

- 📄 **Barrena astekaria posta bidez jasotzeko aukera.**
- 📄 **Deskontuak** Debabarreneko komertzioetan.
- 💎 **Deskontuak Barrenaren zerbitzuetan** (eskelak, iragarki sailkatuak...).
- ⚡ **Barrena komunikazio proiektua indartzen laguntzen duzu.**
- 📄 Papereko argitalpenak **digitalki eskuragarri** izango dituzu (PDF formatuan).
- 🎲 Hilero antolatutako **zozketetan** parte hartu ahalko duzu: jaki-otarreak, ikuskizunetarako sarrerak eta askoz gehiago!
- 📌 Barrenak antolatutako **ekitaldietan** parte hartzeko aukera izango duzu.
- 📷 **Argazkiak eta bideoak deskargatu** ahal izango dituzu, kalitate altuan eta ur-marka gabe.
- 📄 **Barrenakide txartel digitala.**

📌 **kidetza etxekoak**

95 euro urtean

- 📄 **Abantailak etxeko kide guztientzat.**
- 📄 **Barrena astekaria posta bidez jasotzeko aukera.**
- 💎 **Deskontuak Barrenaren zerbitzuetan** (eskelak, iragarki sailkatuak...).
- 💎 **Deskontuak** Debabarreneko komertzioetan.
- ⚡ **Barrena komunikazio proiektua indartzen laguntzen duzue.**
- 📄 Papereko argitalpenak **digitalki eskuragarri** izango ditu etxeko kide bakoitzak (PDF formatuan).
- 🎲 Hilero antolatutako **zozketetan** parte hartu ahalko du etxeko kide bakoitzak: jaki-otarreak, ikuskizunetarako sarrerak eta askoz gehiago!
- 📌 Barrenak antolatutako **ekitaldietan** parte hartzeko aukera izango duzue.
- 📷 **Argazkiak eta bideoak deskargatu** ahal izango dituzue, kalitate altuan eta ur-marka gabe.
- 📄 **Barrenakide txartel digital bana.**

Barrena.eus[▲]

Jarraitu zure herriko eta bailarako aktualitatea



Albisteak Iritziak **Agenda**

Argazki galeriak **Bideoak** Kirol emaitzak

Iragarki sailkatuak Eskelak **Zorion agurrak**

Elgoibartarren %36,2k hitz egiten dute euskaraz kalean; gehien, haurrek

Euskararen Elgoibarko kale erabilera beste eremu batzuetako batezbestekoaren gainetik dago, Gipuzkoan %30,6koa baita eta Debabarrenean %24,3koa

Ainhoa Andonegi
Soziolinguistika Klusterrak euskararen Elgoibarko kale neurketa egin zuen 2025ean, eta aste honetan aurkeztu ditu datu horiek Elgoibarko Udalak. Guztira, 3.393 elkarrizketa behatu dira (2017an, 3.559), eta horietan, solaskide izan diren 9.202 herritarren (2017an, 9.327) jarduna aztertu da. Oro har, elkarrizketen %36,2 izan dira euskaraz; hau da, ikerketa egin zuten garaian, herriko kalean hamar lagunetik hiru ari ziren euskarazko elkarrizketetan (%36,2), herena baino pixka bat gehiago gaztelaniaz (%61,6) eta gainerakoak, beste hizkuntza batzuetan (%2,2). Hala ere, euskararen erabilera Elgoibarren (%36,2) beste eremu batzuetako batez bestekoaren gainetik dagoela aipatu dute arduradunek: Gipuzkoan %30,6koa da kaleko erabilera eta Debabarrenean, berriz, %24,3koa.

Elgoibarko Udalak 1990ean egin zuen euskararen erabileraren gaineko lehenengo kale neurketa, eta 2025ekoa hamazazpigarrena izan da. 1990ean %20ko erabilera jaso zen kalean, 2000. urtean %38koa izatera pasa zen, eta hamarkada hartan %41era ere iritsi zen erabilera. 2010etik aurrera, hiru neurketa (2014, 2017, 2025) egin ditu Soziolinguistika Klusterrak Elgoibarren, eta, 2017an egindako azken neurketarekin alderatuta, ez da apenas aldaketarik izan kaleko erabileran, %35,9

izatetik %36,2 izatera pasa baita. Beraz, 2017ko neurketarekin alderatuta, igoera xumea izan da, %0,3koa. Datuei erreparatuta, esan daiteke euskararen erabilerak egonkor jarraitzen duela azken zortzi urteotan Elgoibarren, baina, hala ere, aipatu beharrekoa da 2014tik behera egin duela, %39koa izatetik %36,2 izatera pasa baita.

Gehien, umee
Hiztune dagokienez, haurrek erabiltzen dute gehien euskara (%54,8). Ondoren, helduak (%38) eta gazteak (%29,6) agertzen dira, eta, azkenik, adinekoak daude (%19,6). Horren ondorioz, haurrak nagusi diren giroa da euskaldunena, eta paseoetan eta jolaslekuetan erabilera %43,7koa da. Horri kontrajarrit, adinekoen erabilera eskasa nabarmendu dute arduradunek; %19,6koa, alegia. Adinari erreparatuta, beste datu interesgarri bat ere eman dute: adin-talde guztietan egiten da euskaraz gehiago adin askotariko lagunez osatutako taldeetan adinkideekin osatutakoetan baino. Hori arrazoitzeko, azalpen hau eman dute: Euskal Herriko kaleetan pertsona nagusiak euskaraz gehiago aritzen dira haurrak hurbil daudenean eurak bakarrik daudenean baino. Joera hori orokorra da, eta Elgoibarren ere hori betetzen dela baieztatu dute. Nagusien arteko taldeetan entzuten da gutxien euskaraz, eta haurrekin daudenean, aldiz,



Aurkezpen-ekitaldiko irudi bat. I.L.

nabarmen igotzen da euskararen erabilera.

Giro sozialak aztertuta, berriz, euskara gehien paseoetan eta jolasguneetan entzun dela ondorioztatu dute; horren ondoren, gazte eta txikiteo giroan; eta jarraian, etxetik kanpoko familia giroan (%43,7, %38,9 eta %33,6, hurrenez hurren). Gutxien, berriz, erosketa giroan (%27,2). Generoaren arabera azterketa ere egin dute neurketan, eta ondorioztatu dute emakumezkoek (%38,7) zertxobait gehiago egiten dutela euskaraz gizonezkoek baino (%32,5). Joera hori neurketak egin diren edizio guztietan gertatu dela azaldu du Udalak, eta, oro har, Euskal Herriko lurralde guztietan gertatzen den fenomeno dela, adin-talde guztietan, adinekoengan izan ezik.

2017tik 2025era ez da apenas aldaketarik egon kale-erabileran: %35,9tik %36,2ra

Erabilerak "egonkor" jarraitzen du azken zortzi urteotan: 2014an %39koa zen

Hizkuntzaren erabileraren kale-neurketa

ELGOIBAR, 2025. DATU NAGUSIEN LABURPENA.

Datu orokorrak	Euskaraz	% 36,2
	Gaztelaniaz	% 61,6
	Beste hizkuntzatan	% 2,2
	Euskararen erabileraren bilakaera (2016-2021)	- 3,5
	Euskararen erabileraren bilakaera (2011-2021)	+0,3
Ibilbideak	1. Paseo eta jolaslekuak	% 43,7
	2. Gazte giroa eta txikiteo giroa	% 38,9
	3. Erosketa giroa	% 27,2
	4. Etxetik kanpoko familia giroa	% 33,6
Sexua	Emakumezkoek	% 38,7
	Gizonezkoek	% 32,5
Adina	Haurrek	% 54,8
	Gazteek	% 29,6
	Helduek	% 38,0
	Heldu gazteek	% 46,5
	Heldu nagusiek	% 25,0
	Adinekoek	% 19,6
	Haurren artean	% 45,6
	Gazteen artean	% 28,1
	Helduen artean	% 32,9
Haurren presentzia	Heldu gazteen artean	% 42,4
	Heldu nagusien artean	% 20,2
	Adinekoen artean	% 15,5
	Haurrak bakarrik (nagusirik gabe) daudenean	% 45,6
	Nagusiak bakarrik (haurrik gabe) daudenean	% 26,3
	Haurrek eta nagusiek osatutako taldeetan	% 64,7
	Haurrek hitz egiten dutenean	% 63,3
	Nagusiek hitz egiten dutenean	% 66,3



Zigilu erakusketako bildumagileak. MIKEL ASKASIBAR



Iker Izagirre, finalean. M.A.



Haur parkea, Sigman. M.A.



Bost Brass taldearen kontzertua, Herriko Antzokian. M.A.

Giro hotzarekin, baina bero ospatu zuten elgoibartarrek San Anton eguna

Erraldoien eta buruhandien kalejira bertan behera geratu zen, euriagatik

Ainhoa Andonegi

Hotz eta umel esnatu zen San Anton eguna Elgoibarren, baina erraldoien eta buruhandien kalejira ez beste ekintza guztiak normal egin ziren, barruan edo aterpean egiten direlako gehienak.

Haur parkea Sigmara lekualdatu zuten, eta umeen gozamen-gune bilakatu zen apar-kalekua. Bost Brass metal taldearen kontzertuak ere piztu zuen herritarren interesa, eta baita Altxolatarren Dorretxea elkarteak antolatzen duen zigilu erakusketak ere. Bildumagileei eskerrak eman zizkieten elkarteak kideek, eta Udaleko ordezkariak ere hartu zuten parte ekitaldian. Domekara arte egongo da erakusketak zabalik. Kirolak ere izan zuen lekua San Anton egunean, eta bi ekintza egin zituzten

kiroldegian: batetik, eskalada erakustaldia egin zuten roko-dromoan; eta, bestetik, igeriketa torneoak.

Elgoibarko Udalak ontzat jo ditu joan zen asteburuan herrian egin ziren ekitaldiak, bai parte-hartzeari dagokionez, bai giroari eta antolakuntzari dagokionez ere, eta eskerrak eman dizkie ekitaldiak ahalbidetu zituzten elkartei, antolatzaileei, kirol klubei eta laguntzaileei, baita boluntario lanetan aritu ziren guztiei ere.

Pilota txapelketako finala

Emakumezkoen lau eta erdiko finalak zabaldu zuen pilota jaialdia. Goiuri Zabaleta leitzararak eta Laia Salsamendi etxauriararak partida lehiatua jokatu zuten, eta, 22-19ko emaitzarekin, Zabaletak jantzi zuen txapela. Hemeretzinako berdinketaren

ostean, Zabaletak errenkadan egin zituen azken tantoak, eta finala eta torneoak irabazi zituen, bigarren urtez jarraian.

Gizonezkoen binakako finala jokatu zuten segidan, Iker Izagirre eta Aratz Ormaetxeak osatutako bikoteak Ramirezen eta Okiñenaren kontra. Senideen eta lagunuen aurrean txapela janzteko gogoz kantzaxatu zen Izagirre elgoibartarra, baina harmailetatik jasotako animoak ez ziren nahikoak izan horretarako. Izagirre eta Ormaetxea aurretik ibili ziren lehen tantoetan, baina kontrako bikoteak behin eta berriz lortu zuen markagailua berdintzea, eta azkenean 22-18 irabazi zuten Ramirezek eta Okiñenak. Azkenik seniorretan, Murua eta Bernaolak irabazi zuten partida 22-15, Apezetxea eta Balerdiren kontra.

Sakelakoei buruzko kafe-tertulia gaur



ARTXIBOA

Amataumobila taldeak kafe-tertulia antolatu du LH-5eko, LH-6ko eta DBH-1eko ikasleen gurasoentzako, seme-alabei sakelakoa emateko adina atzeratzeko helburuarekin. Sakelakoak sortzen dituen arriskuez hausnartzea da helburua, eta hezkuntzan eta osasun digitalean aditu Telmo Lazkanok gidatuko du saioa. 18:30ean izango da, Aita Agirren.

'El peor espectáculo del mundo' antzerkia gaur Herriko Antzokian

A.A.

Elgoibarko Udaleko Kultura Sailak antolatuta, *El peor espectáculo del mundo* antzezlanak aurkeztuko du gaur Zanguango Teatroak. Miguel Muñozek zuzendu du obra eta Txubio Fernandez aktorea da protagonista nagusia. Auzoko heroi bat protagonista duen biopic bat da. Aurrekontu txikiarekin eta material txarrekin beren burua egiten duten pertsona horiekiko guztiekiko maitasun-ekintza bat adierazten du lanak. Norbait izaten saiatzen direnei buruzko pieza komiko bat, baina, azkenean, untxiena bezalakoa da haien bizitza, arrastorik utzi gabe sastrakaz sastraka salto egiten dutenena, eta, atzera begiratzean, eskopetekiko bel-



durra besterik ez dutena ikusten.

Herriko Antzokian izango da emanaldia, 19:00etan. Nahi duenak herrikoantzokia.eus webgunean erosi ditzake sarrerak, eta, bestela, antzokiko leihatilan.

%25EKO DESKONTUA
NEGUKO OHE-ARROPETAN

%45EKO DESKONTUA
KORALINAZKO IZARETAN

San Roke kalea, 20 - Elgoibar
943 74 44 57 - 685 75 69 78 - www.textillagunak.com

Datozen asteetan hasiko dituzte anbulatorio berria egiteko obrak

Merkatu plaza itxi egin dute eta hango zerbitzuetan aldaketak egin ditu Udalak

Ainhoa Andonegi

Joan den barikuan itxi zuten merkatu plaza, eta anbulatorio berria egiteko obrak hasiko dituzte. Lehenengo lana eraikin azpian dagoen transformadore elektrikoaren zentroa lekuz aldatzea izango da, eta, Udalak aurrerratu duenez, datozen asteetan hasiko dira horretan. Bien bitartean, merkatu plazan biltzen ziren hainbat zerbitzu birkokatu egin ditu Udalak; adibidez, Kontsumorako Bulego Zerbitzuak ohiko ordutegian emango du arreta, astelehenetik barikura, 09:00etatik 13:00etara, Kultur Etxean, bigarren solairuan, hitzaldi gelaren ondoan. Harremanetarako, honako bide hauek erabil daitezke: *omicel-goibar@gmail.com* eta 943 74 30 88 telefono zenbakia.

Bestalde, eguen goizetan merkatu plazan egoten diren baserritarren lekualdatzea urtarri-laren 29an izango da. Aita Agirreko arkupeetan eta haren inguruetan kokatuko dituzte postuak aurrerantzean. Udaleko ordezkariak azaldu dutenez, lekualdaketa baserritarrek elkarlanean landu dute, batzarrak eginez, eta, hainbat aukera aztertu ostean, baserritarrek eurek aukeratu dute kokaleku berria.

Parrokiako Misio Taldeak ere bazuen lekua merkatu plazan, eta hemendik aurrera musika eskolako arkupean arituko dira bidezko merkataritzako produktuek saltzen hileko azken egue-nean eta hileko azken zapatuko ferian. Azkenik, orain arte Kalebarren plazan egin izan diren hil bukaerako azokak Aita Agirren egingo dituzte, hilaren 31tik aurrera.

70eko hamarkadako eraikina

Elgoibarko merkatu plaza beti leku berean egon izan da, Al-tzolatarrren dorretxearen eta San Frantzisko kaleko 1. zenbakiaren artean. Pedro Muguruza Otaño arkitekto elgoibartar ezagunak diseinatu zuen lehenengo merkatu plazaren eraikina, eta 1926an inauguratu zuten, San Bartolome egunez.

Pello Arrieta historialariak *Elgoibar, iragana eta oraina* liburuan jaso zuenez, hasierako eraikin hark oinplano angeluzuzena zeukan, eta bi zatitan banatuta zegoen: sarrerako arkupea eta barrualdeko espazio zabala. Atariko toskanar ordenako zutabeak, armarria babestu zuen frontoia molduraz apaindua eta obeliskoen eta bolen dekorazioa nabarmendu ditu Arrietak elementuen artean. Atari neoklasiko monumentala zeukan. Atzeko fatxadari dago-kionez, Pilar ikastetxera joateko oinezko zubia nabarmentzen da. Jose Maria Muguruza arkitektoak diseinatu zuen zubi hura, eta haren *opera prima* izan zela dio Arrietak liburuan.

70eko hamarkadan bota zuten hasierako eraikin hura, eta gaur egun arte iraun duena eraiki zuten. Merkatu plazak

bi solairu zituen, eta herriko merkataritza-gune garrantzitsuena zen garai hartan. Beheko solairuan, fruta- eta barazki-postuak, harategiak, zapa-ta-konpontzailea, jaki izoztuen postuak eta taberna zeuden; bigarren solairuan, berriz, arrandegiak, lore-saltzailea eta baserritarren postuak. Pisu bat gorago izan du oraintsu arte lantokia Debemenek, eta, garai batean, musika eskolako hainbat gela ere hantxe zeuden. Goi-goiko pisua Haritz dantza taldeak erabiltzen zuen, eta azken urteetan danborradako entseguak han egin izan dituzte.

Merkatu plazaren alboan beste eraikin bat dago, gaur egun hutsik, baina urteetan egon zen han Udal Euskaltegia, eta haren aurretik anbulatorioa ere bai. Odol emaileen lokala ere han



Merkatu plazaren atzekoaldea, erreka aldetik ikusita. YULEN.



Joan zen astean izan zuten azken eguna merkatu plazan. ASIER ORBEA.



1926an inauguratu zuten azoka, Pedro Muguruzak diseinaturakoa. ELGOIBAR1936

zegoen, eta *Barren* astekariak han hasi zuen ibilbidea, 2020an Aita Agirre eraikinera aldatu zen arte.

Merkatu plaza itxi egin dute, eta, ondo bidean, aurten eraitsiko dute eraikina, anbulatorio berria eraikitzeko.

Bagatoz lanera, heztera, jolastera, eraldatzera

Ate Irekiak (HH, LH): Urtarrilaren 28an, 17:00etan

Aurrematrikulazioa: otsailaren 2tik 13ra

IKASTOLAK

elgoibar@elgoibarikastola.eus

943 744 441

BAZATOZ?

NIRE USTEZ

Aspaldiko loreak



IZARO
ETXEGIBEL SORALUZE
EUSKARA IRAKASLEA

Paper zaharren artean bila zebilela, aspaldiko gutun-azal bat aurkitu zuen komodako kaxoian. Desberdina besteen aldean. 1990eko abuztuak 3 irakur zitekeen oraindik, posta-zigilu kolorea ia guztiz galdutakoan. Lagun batek uda hartan Debatik bidali zion eskutitza zen. Hala zioen atzealdeko idatziak. Zumaiako uda amaiezinak gogoratu zituen, ekainean hasi eta iraileira arte irauten zuten haiek. Pentsatu zuen orain baino handiagoak zirela distantziak lehen:

luzeagoak denboran, zabalagoak espazioan. Gutuna irakurtzen hasi zen, eta sentipen arraro bat atzeman zuen berehala. Ezezaguna zitzaion laguna, ezezaguna idazteko modu hura, ezezagunak protagonistak; ez zuen ezer ulertzen. Ez zekien nori buruz ari zitzaion berbetan, zeharo arrotza eta ezezaguna zen guztia. Zaila zen laguna gutuna idazten irudikatzea, bihotzak marrazten; are zailagoa berak gutuna jaso zuenean sentitu zuena asmatzea. Segur aski, barrez lehertuko zen garai hartan, eta, orain, berriro irakurtzea bakarrik nahi zuen, ezjakintasun sentipen arraro

hark alde egin zezan. Denboraren botereaz ohartu zen derrepente, ahatarazteko eta gogorarazteko duen ahalmenaz. Aspaldiko kontuak, aspaldiko loreak. Behinolako mezu eternalenetan. Ispilu interesgarriak direla berba zaharrak esaten da, geure buruei buruz esaten ez ditugun denak gordetzen dituztela. Laguna eta bere burua ez zituen ispiluan ezagutu, baina. Errealitatearen irudi distortsionatu bat ikusi zuen soilik. Lagun bien bertsio nerabea. Eskutitza erakustea pentsatu zuen, baina ez du gogoratzen non gorde zuen. Memoria.



GALDERA

Baranda konpontzeko dago



Azaro bukaeran istripua izan zuen herritar batek San Rokerako aldapan, eta bide bazterreko baranda hautsi zuen. Noiz konpondu behar dute? Eta, bide batez, jakin nahi nuke horrelakoetan nork ordaintzen dituen hiri-altzariak, entzunda baitaukat hondatzen dituenari dagokiola ordaintzea. Maialen Gurrutxaga alkateak eman ditu azalpenak: "Istripua gertatu zenean eskatu genuen baranda berria, baina neurrira egin beharreko lana denez, otsailerako agindu ziguten. Espero dugu otsailean zehar konpondu ahal izatea. Ordainketari buruz, kasu honetan Udalak ordainduko du, eta gero, aseguru-etxeekin jarriko gara harremanetan, dagokionari bere ordaina eskatzeko. Ez da gauza bera hiri-altzariak istripuz edo nahita hondatzea. Aseguru-etxeak daude istripuen aurrean erantzuteko".

Whatsapp: 688 655 658

KEXA

Edukiontzi marroia dela eta



"Gutun bat jaso dugu etxean, Debarreneneko Mankomunitatetik, eta dio edukiontzi marroiko txartela ez dugula behar beste erabiltzen. Herritarren betebeharra dela jartzen du, eta ez erabiltzeak ondorio ekonomikoak izan ditzakeela. Gure kasuan, esan nahi dut oso kontzientziatuta gaudela birziklatzearekin, eta erabiltzen dugula edukiontzi marroia. Ez dakit nola jakin dezaketen familia bakoitzak zenbat erabili behar ote duen edukiontzi marroia".

Whatsapp: 688 65 56 58

KLIK

Espero gabeko elurtea



SAIOA
RODRIGUEZ

COVID garaiko argazkia da ondokoa. Apirilean elurra egin zuen, ezustean, eta inguruko mendiak zuritu zituen, herritarren gozamenerako. Jende askok jo zuen mendira, naturak egindako opariaz gozatzera. Saioa Rodriguez Karakatera igo zen, eta han atera zuen erretratua. Jende asko zebilela gogoratu du: batzuk Karakateraino igo ziren, beste batzuk Atxolin aldera... Ez zuen, baina, askorik iraun elurrak, eta eguerdirako garbitu ziren bazterrak.



Elgoibarko korrikalariak ere hartu dute parte Mugertza Krosean

Ainhoa Andonegi
Nazioarteko korrikalaririk onenek hartu zuten parte domekan Mugertza krosean, eta haiekin batera aritu ziren Elgoibarko korrikalariak ere. Hamasei lagunek hartu zuten parte Elgoibartik; Mintxeta Atletismo taldekoak gehienak. Elgoibartarrek gizonezkoen senior mailako lasterketan izan

zuten ordezkaritza zabalena, bederatzi lagunek hartu baitzuten parte lasterketan: Mikel Agirrebeña, Alberto Arberas, Iñigo Lariz, Iker Arrillaga, Mikel Gurrutxaga, Jon Dominguez, Markel Amutxastegi, Igor Torres eta Angar El Hassowni. 16 urtez azpikoetan, berriz, zazpi gaztek hartu zuten parte, sei neskak eta mutil batek:

Nahia Mazorriaga, Nahia Larreategi, Nera Castro, Ikerne Martin, Ines Zabala, Unax Santos eta Maialen Del Sol.

Mikel Agirrebeña azkarrena
Elgoibarko ordezkarien artean, Mikel Agirrebeña izan zen onena: 37. postuan sailkatu zen, 35.05 eginda; iaz baino 57 segundo gehiago.



Korrikalari elgoibartarrak, Mintxetan. ASIER ORBEA / MIKEL ASKASIBAR



Jehovaren Lekukoek gurtzarako aretoa inauguratu dute Sigman

Jarduerak euskaraz egingo dituen talde bat ere egongo da

A.A.
Olasoko industrialdean zabaldut dute Jehovaren Lekukoek loka- la, eta, Javier Garoña taldeko bozeramaileak emandako azalpenen arabera, auzolanean prestatutako aretoa da. Eskualdeko 153 lagun eta Madrildik, Galiziatik eta Almeriatik etorritako beste 67 kide aritu dira lanean hiru bat hilabetea, eta adierazi du instalazio berria irisgarria, energetikoki eraginkorra eta ingurumena errespetatzen duen dela.

Lehen egoitza, 1973koa
Jehovaren Lekukoak duela hamar markada batzuetatik daude Elgoibarren. Gogora ekarri dute- nez, erlijio-askatasunik ez zegoen garaietan etxe partikularretan bildu behar izaten zuten, eta lehen lokala duela 50 urte pasatxo ireki zuten, Eibarren. Es-



Jehovaren Lekukoak, lokalaren inaugurazio-ekitaldian. T.J.

kualdeko lehen egoitza hura 1973ko apirilean inauguratu zuten. Orduko hartan gutxi batzuk izatetik gaur egun 250 kide baino gehiago izatera igaro dira, eta adierazi zuen Garoñak inaugurazio-ekitaldian. Instalazio berri horietan, Er- muko, Eibarko eta Elgoibarko lekukoak bilduko dira, bereziki,

baina beste talde bat Arrasate eta Bergara ingurukoa izango da. Horrez gain, hirugarren talde batek bere jarduerak guztiak euskaraz egingo dituela azaldu zuten. Lokal horrekin, komunitate erlijiosoak elkartzeko eta erlijio-ekitaldiak egiteko zeukan gune egoki baten beharrari eman diote erantzuna.

Pentsio duinen aldeko manifestazioa



Kalegoen plazan hasi zuten manifestazioa. ASIER ORBEA

Zortzi urte bete dira Euskal Herriko pentsiodunen mugimendua herrietako plazetan astelehenero elkartzen hasi zela, pentsio duinen alde, eta, urtemugaren harira, manifestazioa egin zuten joan den astean. Elgoibarko Duintasuna Elkarteak aditzera eman duenez, "zortzi urteko borrokaren ondoren, asko dira oraindik ere konpondu gabeko arazoak", eta urteurrena ospatzeko baino gehiago, egoera salatzeke baliatu dute.

Osasungintza publikoaren aldeko elkarretaratzea

24/7 plataformak osasungintza publiko duinaren aldeko elkarretaratzea egingo du urtarrilaren 28an. Elgoibarko anbulatorioko larrialdi zerbitzua 24 orduz eta asteko zazpi egunetan zabaltzeko eskatzen dihardute azken urteotan, eta aldarrikapen horri anbulantzien zerbitzuaren gaia gehitu diote orain. "Onartezina da Elgoibarko eta Tolosako Gipuzkoako anbulantzietako 45 langile erabateko ziurgabetasunean egotea", adierazi dute. Anbulatorio aurrean batuko dira, 12:00etan.

EXPRESS ESKAINTZAK!

QNED LG 55QNED84A6C.AEU TELEBISTA

479 €

4K UHD

SmartTV WebOS 25

Ahots bidezko kontrola

Dolby digital plus

Googleren laguntzailea

3 HDMI

USB

QNED teknologia

Tecnología exclusiva de LG, con más de 1.000 millones de colores

LG QNED

2025

2040

Nº1

Ubitarte, 11 - 943 741 487

bire@milar.es

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte

Gym Berdearen bigarren denboraldia abiatzeko aurkezpen-bilera hilaren 29an

16 urtez gorakoentzako ekimena da, herriko lorategietan lan eginez ariketa fisikoa egiteko

Ainara Argoitia

Otsailaren 10ean abiatuko du Mendaroko Udalak Gym Berdea ekimena, bigarren urtez. Herriko lorategi eta basoetan lan eginda herritarren ongizate pertsonala sustatzeko eta herria edertzeko ekimena da, 16 urtez gorakoentzako eta Jaurlaritzak babestutakoa. 2025ean, estreinako urtean, dozena bat lagun inguruk eman zuten izena, eta

orain, jende gehiagori parte hartzeko aukera zabaldu nahi die Udalak. Horretarako, bilera antolatu du urtarrilaren 29rako, ekimena bera zertan datzan azaltzeko. Udaletzeko udalbatza aretoan egingo dute bilera hori, 19:00etan hasita.

Keko Alonso biologoak gida-tu du aurten ekimena, eta, hark aldizkari honi esandakoaren arabera, osasuna sustatzeko



Gym Berdeko bi lagun, Garagartzako berdegune batean lanean. A.ARGOTIA

eta ingurumen-krisiari aurre egiteko egitasmoa ere bada Gym Berdea. Mendaroko Udalak Larrabetzuko eredia gustatuta jarri zuen martxan iaz; 2016an jarri zuten martxan ekimena han. Bi helburu nagusi ditu Gym Berdeak: batetik, ariketa fisikoa eginez osasuna eta ongizatea hobetzea; eta, bestetik, herrian sozializatzeko aukerak sortzea eta komunitatea indar-

tzea. Gym Berdean izena emandakoak martitzenero batzen ziren iaz lanerako, 16:15etik 19:30era. Eguneko jarduna bukatzeko, berriz, luzaketak ere egiten zituzten, uzkurtutako giharrek luzatzeko eta lesioak saihesteko. Eta herriko espazio berdeetan hainbat lan egin zituzten; ikusgarrienak, Trinitate baselizaren inguruan eta Garagartzan.

'Haurrentzako zinema euskaraz'

A.A.

Haurrentzako zinema euskaraz ekimena abiatu dute Mendaroko Udalak eta Arno guraso elkarteak elkarlanean. Hain zuzen, urtarileko eta otsaileko agendaren berri eman dute, eta bost film aukeratu dituzte. Urtarrilaren 25ean proiektatuko dute aurreneko filma, Adrian Garciak zuzendutako *Barrakudaren altxorra* izenekoa; otsailaren 1ean, 8an, 15ean eta 22an izango dira hurrengo zinema-emanaldiak, leku eta ordu berean: San Agustín kulturgunean, 17:00etan. Honako hauek dira filmak: *Ira-bazi arte*, *Hartz-atzapar kanpamentua*, *Lagunak erreskatara!* eta *Minecraf*.

Daniel Juarez saxofoi jotzailearen kontzertua bihar, zapatua

A.A. MENDARO

Daniel Juarez saxofoi-jotzaileak eta haren taldeak kontzertua emango dute bihar, urtarrilak 24, Mendaron. Mesa 7 elkarteak antolatu du kontzertua, Udalaren, Gararock taldekoe eta Uztargi tabernakoen laguntzarekin, eta sarrerak salgai daude dagoeneko Uztargi tabernan, 15 euroan. Kontzertua San Agustín kulturgunean izango da, 21:30ean hasita. Adriano Galanteren kontzertua antolatu zuen orain hurrengo talde horrek berak, urtarrilaren 9an.

Musikari eta konpositore eza-guna da Daniel Juarez (Talavera de la Reina, Toledo, Espainia, 1992). 4 urterekin hasi zen ai-

taren eskutik jazz, latin jazz eta jazz fusioa ezagutzen. 10 urterekin, saxofoi jotzen hasi zen herriko Udal Musika eta Dantza Eskolan, eta, hangoak amaituta, Madrilera joan zen gero, pianoa eta harmonia ikastera, Musika Sortzaileen Eskolara. 2011n, Euskal Herriko Goi Mailako Musika Kontserbatorioan (Musikene) sartu zen, Jazz Saxofoiaren Interpretazio modalitateko Musikako Goi Mailako Titulua lortzeko. Ondoren, masterra egin zuen Herbehereetan, eta New Yorkera jo zuen gero ikastera. 2017az geroztik Madrilén bizi da, eta saxofoi jotzailea, konpositorea eta irakaslea da. Mendarora,



Daniel Juarez saxofoi jotzailea. D. JUAREZ

baina, ez da bakarrik etorriko. Harekin batera beste hiru lagun arituko dira oholtzan: Naima Acuña (bateria), Pablo Martín (kontrabaxua) eta Moises P. Sanchez (pianoa).

Bete da Kilimon Trail lasterketa motzerako izen-ematea

Apirilaren 18an jokatu da aurten Kilimon Trail mendi lasterketa, hamalaugarrena. Joan den asteko astelehenean zabaldu zuten izena emateko epea antolatzaileek, eta, lerro hauek idazterako, lasterketa motza beteta zegoen, eta betetzear luzea, 23 kilometrokoa. Ibilbide luzerako 250 lagunek eman dezakete izena, eta mo-

tzerako 200 lagunentzako lekua izango zela esana zuten antolatzaileek. Bietan zabalduko dute itxarote-zerrenda gero –*kronoak.com*–.

Aurten ere, Euskal Koparako proba puntuagarria izango da Kilimon Trail mendi lasterketa, eta kadete eta junior mailetan Euskal Herriko Txapelketa ere bai. Bost minutuko aldearekin irtengo dira bi lasterketak eguna iritsitakoan: 16:00etan abiatuko dira ibilbide motzeko korrikalariak, eta 16:05ean luzekoak.

ENGLISH SQUARE

SCHOOL OF ENGLISH

DBH eta batxilergoko maila guztiak
First eta Advanced tituluak

Sokagin kalea 12, DEBA
648 268 206
info@english-square.net

Bagatoz lanera, heztera, jolastera, eraldatzera

Ate Irekiak (DBH): Urtarrilaren 28an, 17:00etan

Aurrematrikulazioa: otsailaren 2tik 13ra

elgoibar ikastola

IKASTOLAK

elgoibar@elgoibarikastola.eus
943 744 441

BAZATOZ?

Aurreikuspenen arabera, datorren astean martxan

Abenduatik gero geldi egon da Aldapa eta Ongarai arteko igogailua. Udaleko ordezkariak bizilagunekin batu dira, konponketaren egoera eta izan diren arazoak azaltzeko. Mantentze-lanen ardura duen enpresak datorren aste hasieran konponduko duela agindu du

Ander Gomez ERMUA

2016an jarri zituzten martxan San Pelayo eta Ongarai kaleak lotzen dituzten bi igogailuak. Geroztik, ezinbesteko bihurtu dira Betiondo Kirolgunera, Ongarai Eskolara, Anaitasuna Ikastolara eta skate- eta ur-parcera igo behar duten herritarrentzat, eta bertako bizilagunentzat –batez ere, edadetuentzat eta mugikortasun urrikoentzat–. Eskaileretan edo maldan gora eta behera ibili beharrean, San Pelayo parketik zuzenean 34 metroko desnibel bertikala saihestea ahalbidetzen diete. Bestela, VI. Mendeurrena kale-tik abiatzen diren arrapala mekanikoak dira alternatiba, igogailutik 350 metrora daudenak.

la bi hilabete matxuratuta

Azkenaldian, alternatiba horiek erabiltzen dihardute, halabeharrez; izan ere, bigarren igogailua –Aldapa eta Ongarai kaleak lotzen dituen– geldirik dago abenduaren 4az gero.

Udalak jakinarazi duenez, mantentze-lanez arduratzen diren enpresek berehala konpondu ohi dituzte matxurak: "Kontratuan jasotzen da ohiko hileroko inspektzioez gain gorabeheraren bat gertatuz gero, ordu-betean bertaratu behar dutela". Hala ere, batzuetan egun batzuk irauten dute, 2020an eurite eta txingor-zaparradek igogailu hura bera urez bete zutenekoa kasu.

Oraingoan, ordea, zapzi aste daramatza etenda, eta, herritarren kexa ugari jasota, azalpenak emateko bilera irekia antolatzea erabaki zuen Ermuko Udalak.

Udalaren azalpenak

Astelehenean egin zuten bilera, Ongarai Eskolan, eta 60 bizilagun inguru elkartu ziren. Udaletik bertaratutako ordezkariak izan ziren Beatriz Gamiz alkatea, Rosa Maria Cid alkateordea, Placido Hernandez brigadaren ardura-duna eta Olatz Echeverria arkitektoa. Azaldu zuten, Thyssen Krupp enpresak –orain TKE– zeukan igogailuen ardura, baina, urte bukaeran, lehiaketara atera eta Oronari esleitu zitzaion. Aza-



Igogailua, zerbitzuz kanpo. A. GOMEZ

roaren leian sinatu zuten, eta hilaren 3an enpresa aldaketa gertatzen denetan egin beharreko derrigorrezko inspektzioa egin zuen BKE batek (Baimendutako Kontrol Erakundea). Aldapa-Ongarai igogailuko material batzuk oker zeudela identifikatu arren, ez zuten egoera larritzat jo, eta, legez sei hilabete epea dutenez horrelako konponketak egiteko, bere horretan utzi zuten.

Abenduaren 4an, ohiko mantentze-lanen bisita egin zuen Oronak –matxura barik ere egin beharrekoa–, eta arazoa handia zela ikusi zuen. Kable batzuk poleatik askatuta zeuden, eta, segurtasun arrazoiengatik, gelditzea erabaki zuten. Behin-behineko konponketa saiakerek ez zuten emaitzarik izan, eta urtarilean talde tekniko espezializatu bat bidaliko zutela agindu zuten. Bitartean, material guztiak aldatzeko aurrekontua prestatzeko eskatu zien Udalak.

Hilaren 8an hiru teknikari saiatu ziren konponketa egiten, baina ez zuen lortu, "opor garaia zela eta teknikari adituak ez zirela bertaratu" argudiatuta. Udalak "onartezintzat" jo zuen bai horrelako kasuetarako "B planik ez izatea", bai materialen inguruko informaziorik jaso ez izana. Hala, mantentze-lanen arduradun ohia eta, aldi berean, igogailuaren piezen fabrikatzailea den TKE-rekin jarri ziren harremanetan zuzenean –arrapala mekanikoen kontratua aktibo egonda, harremanetan segitzen zutelako–.

Martxan jartzeko data

Astelehenean bertan, bilera egin aurretik, Oronaren mezua jaso zuen Udalak, kableak eta polea egunean eta barikuan jasoko zituztela jakinaraziz, eta konponketa astelehenean edo martitzenean egitea aurreikusten zutela. Udalak azaldu du astean zehar egunero jarraitu duela deitzen, datak mantentzen direla ziurtatzeko. Enpresak hala baieztatu arren, data hori "tentuz hartzeko" eskatu die bizilagunei, "izan diren atzerapen guztiak kontuan hartuta".

Bileratik ateratakoak

Arazo teknikoaren inguruko azalpenak entzunda, bileran egondako bizilagunek Udalari helarazitako kexa nagusia izan zen "hainbeste denbora informazio barik igaro izana", eta eskatu zioten "komunikazioa sarriago eta arinagoa izateko". Rosa Maria Cidek azaldu du ohar informatiboaren sistema birplanteatu egingo dutela: "Igogailuen atee-tan eta eskaileretan ez ezik, etxebizitzaren atarietan eta puntu estrategikoetan ipintzeko konpromisoa hartuko dugu –eskolak eta eskolen hormak–, mezuak bizilagun guztiengana heldu daitezke".

Aurrekontua, 6.728,59 euro

Desbideratze-polearen aurrekontua 1.634,76 eurokoa da eta trakzio-kableena, 5.094,83 eurokoa –BEZa aparte–. Enpresek bere gain hartu behar dituzte kostuok, baina arazoa aldaketa betean gertatu denez eta desadostasunak egonda, Udalak aurreratu egingo du dirua, "arazoa lehenbailehen konpontzeko". Diotenez, ondoren aztertuko dute nori dagokion ordaintzea: "Auzibidez, behar izanez gero".



Goiko pasarelan, ume bat eskolarako bidean, igogailuaren inaugurazio-egunean. UDALA

Helduen Heziketa Iraunkorrerako zentroak matrikulazioa zabalduko du hilaren 26an

Ermuko zentroak irakurketan, idazketan eta ahozkoan trebatzen ditu ikasleak

Dorleta Vidal

2025-2026ko ikasturteko bigarren lauhilekoan izena emateko epea zabalduko du Ermuko Helduen Heziketa Iraunkorreko (HHI) eskolak datorren astean, eta bertan, aurreko lauhilekoa gainditu duten ikasleek eta ikasle berriek eman ahal izango dute izena. HHI zentroek DBHra arteko ikasketak eskaintzen dituzten arren, Ermuko eskolan Lehen Hezkuntzako hirugarren mailara arteko baliokideak diren ikasketak ematen dira, ikasleek oinarritzko ezagutzak bereganatzeko helburua dutenak.

Matrikulazio epea urtariraren 26tik otsailaren 6ra bitartean egongo da zabalik, eta interesa duten herritarrek Izarra Txiki eraikinera jo beharko dute, astelehenetik ostiralera, 09:30ak eta 12:00ak bitartean; astelehen eta astearteetan, gainera, arratsaldez ere zabalik egongo da eskola, 15:00etatik 18:00etara, hain zuzen ere. Telefonoz ere informazioa jasotzeko aukera egongo da, 94 681 42 53 eta 662 94 47 96 zenbakietara deituta.

Matrikula egin ahal izateko, ikaslea identifikatzeko dokumenturen bat eraman beharko da –pasaportea, NA...–, eta zehaztu beharko dira helbidea, helbide elektronikoa eta telefono zenbakia. Bestalde, ikasketak guztiz doakoak diren arren, ikasturte hasieran bost euro eraman beharko dituzte ikasleek, eskolako materiala eta fotokopiak ordaintzeko.



Azken urteotan, Izarra Txiki eraikinean dago Ermuko HHI eskolaren egoitza. D. VIDAL

Arduradunek azaldu dutenez, Ermuko eskolan G1 taldeko ikasketak egiten dira, Lehen Hezkuntzako 1., 2. eta 3. mailen baliokideak direnak, eta irailaren 15etik gaur arte iraun duen lauhilekoan 81 ikasle egon dira matrikulatuta: 57 ikasle goizez aritu dira eta 24 arratsaldez. Goizekoak, aldi berean, bi taldetan banatuta egon dira: 34 lagunek LHko lehen mailaren pareko ikasketak egin dituzte; gainontzeko 23ak, ordea, maila altuago batean aritu dira. Arratsaldez, aldiz, 24 ikasleek elkarrekin jardun dute.

Egunerokotasunean moldatu

Ikasketa horien helburu nagusia da ikasleek gaztelaniaz hitz egiten, irakurtzen eta idazten ikastea, baita ere oinarritzko eragiketa matematikoak menderatzea, egunerokotasunean moldatu

ahal izateko: medikuarengana edo seme-alaben eskolako bilera bakarrik joan ahal izateko eta supermerkatuan prezioak ulertu ahal izateko, besteak beste. Eta askok lan-mundura salto egin nahi dute, batez ere mutilak, eta horretarako hizkuntza ulertzea ezinbestekoa dute.

Ikasleen profilari dagokionez, ikasle guztiak atzerrikak eta etorritakoak dira, gehienak Marokotik, baina baita Pakistandik, Senegaldik eta Kamerundik ere. "Horrez gain, Hego Amerikatik etorritako taldetxoa ere badau-

kagu, venezuelarrak gehienak, eta, kasu horretan, alfabetatu gabeak dira", azaldu dute irakasleek. Generoari dagokionez, ikasle gehienak emakumeak dira, 20 urtetik 50era bitartekoak, eta ia guztiek seme-alaba oso txikiak dituzte. "Beraz, ohikoa da askotan huts egitea, seme-alabak gaixotu egin direlako", aitortu dute HHI zentroko irakasleek.

G1 multzoko ikasketak bukatzen dituzten ikasleek Eibarren edo Durangon jarraitu dezakete ikasten, G2, eta haiek gainditutakoan, G3 ikasketetan eman dezakete izena, Durangon. Ziklo hori bukatutakoan, DBHko titulua eskuratzen dute, "baina gehienek ez dituzte ziklo guztiak bukatzen, aurretik lanean has- ten baitira".

Gela desagokiak

HHI zentroak Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren menpe daude, eta eskualdeka antolatzen dira. Hala, Ermuko eskola Durangaldeko zirkuluaren baitan dago, Berrizko eta Zornotzako eskolekin batera. Haren egoitza Teresa Murga eraikinean egon da urte askoan, baina liburutegiko obrak hasi zirenean 2022an, HHI zerbitzua bertan behera geratu zen, ikasle gutxi zeudela argudiatuta. Handik gutxira, zerbitzua berrezarri egin zuten, baina Izarra Txiki eraikinean.

Arduradunen esanetan, eraikin hartako gelak ez dira egokiak ikasle kopuruari erreparatuta, eta kexu dira, geletan "estu-estu" egon behar dutela iritzita. Hori dela eta, Ermuko Udaleko Hezkuntza teknikari Nagore Dominguezi helarazi diote beren ezinegon, eta espero dute laster gela aproposagoak dituen beste zentro batera lekuz aldatu ahal izatea.

Janus Lesterrek kontzertua emango du Ermuan

D. Vidal

Ermuko Udaleko Kultura Sailak jakinarazi duenez, Nafarroako Janus Lester taldeak kontzertua emango du Ermua Antzokian apirilaren 24an, ostirala, 20:30ean. Egun horretarako Queralt Lahoz abeslariaren kontzertua aurreikusita zegoen, baina, "azken orduko arazoengatik", emaldia bertan behera geratu da. Sarrera erosita zutenek dirua berreskuratzeo aukera izango dute, 943 70 87 00 telefono zenbakira deituta.

Bestalde, Janus Lester ikus- teko txartelak datorren astelehe- nean jarriko dituzte salgai, urtarrilak 26, 15 eurotan. Aurrez aurre erosteko, Lobiano Kultur- gunera joan beharko da, 08:00ak eta 21:00ak bitartean; Internet bidez erostea nahiago dutenek, aldiz, tickets.kutxabank.es web- gunera jo beharko dute.

'Lore' diskoa

Janus Lesterrek bere bigarren diskoa, *Lore*, aurkeztuko du Ermuan, "Euskal Herriko ager- toki onenetara eramaten ari den bira luze baten barruan", taldearen webgunean jartzen duenez: "Askotan, zaila izaten da asmatzea lore bat loratzeko zer falta den; ura edo argia etor dakiguke lehenengo burura, baina beste mila faktore ere izan daitezke tartean, hala nola airea, kokalekua edo lurra. Disko berri baten loratzea ere horrelakoa izaten da maiz, gal- deraz eta zalantza beteriko bide bat".

**2026-2027
AURRE MATRIKULA
GARAI**

**ETOR ZAITEZ
GU EZAGUTZERA!**

INFORMAZIO GEHIAGO
943 179 036
eskola@eskolabarri.com
Santa Ana, 3, z/g (Ermua)

Eskolabarri

Epea:
2026ko otsailaren 2tik 13ra



Oihane Garciak eta Daniel Vidalek penintsulan dauden hainbat espezieren erretratuak bildu dituzte erakusketan. D. VIDAL

"Estilo ezberdina dugun arren, talde bat gara; gure artean ez dago lehiarik"

OIHANE GARCIA ETA DANIEL VIDAL
ARGAZKILARIAK

Bi argazkilari ermuarrek 'Pulso' erakusketa inauguratu dute aste honetan Lobianon

Dorleta Vidal

Hainbat ezaugarri dituzte komunean Oihane Garciak eta Daniel Vidalek; tartean, ermuarrek direla, 1997. urtean jaioak, argazkilaritza dutela gustuko eta naturarekin zerikusia duten ikasketak egin dituztela: Biologiako gradua Oihanek eta Ingu-rumen Hezkuntza eta Kontrola-ren goi-mailako heziketa zikloa Danielek. Duela bi urte ezagutu zuten elkar, eta ordutik haien zaletasunak partekatu dituzte. Lotura horren emaitza da *Pulso*, fauna iberikoaren taupadak ar-

gazki-erakusketa, Lobiano Kulturgunean ikusgai egongo dena otsailaren 1era arte.

Zer irudi jasotzen ditu erakusketa horrek?

Animalien argazkiz osatutako erakusketa da. Guztira 25 irudi dira, eta haietako gehienak Iberiar penintsulan atera ditugu, txakalarena eta itsas arrano buztangorriarena izan ezik. Bi horiek Errumanian erretratatu genituen, eta, endemikoak ez diren arren, penintsulan ere ohikoak dira. Horrez gain, irudi bakoitzaren azpian animalia-

ren izen arrunta, izen zientifikoa eta ezaugarriak jaso ditugu, eta, kasu batzuetan, animalia horien bitxikeriaren bat: flamenkoaren mokoaren ingurukoa edo ugatzak bere burua laranjaz tindatzeko joerari buruzkoa, esaterako.

Zenbat denbora behar izan duzue argazkiok ateratzeko?

Bi urte inguru eman dugu zeregin horretan, elkar ezagutu genuenetik. Ordutik hamaika bidaia egin ditugu furgoneta hartuta, ia astebururo, aurrez aukeratutako animaliak harra-patzeko helburuarekin. Asmo jakin batekin abiatu arren, batzuetan beste animalia batzuk agertzen dira tartean, eta horiek ere erretratatzeko ditugu.

Badago animalia bat bereziki kostatu zaizuen?

Martin arrantzalea. Oso ohikoa den arren, ez da batere erraza izan argazki on bat lortzea.

Zenbat denbora eman dezakezue zain argazki on bat lortu arte?

Aldatu egiten da animalia motaren arabera, baina, batzuetan, kamuflaje-sarea jartzen dugu gainean eta orduak ematen ditugu leku berean, gure *harra-pakina* noiz agertuko zain. Beste batzuetan, *hide-etara* goaz, animaliak begiztatzeko ezkutalekuetara, alegia, eta errazagoa izaten da. Dena den, lekuan bertan ematen duzun denboraz gain, aurreko eta osteko lana ere gehitu behar diozu: batzuetan, hiruzpalau orduko ibilaldia egin behar dugu kamera, tripodea eta prismatikoak bizkarrean.

Ondoren ere lan bat egin beharra dago: bidaia bakoitzetik 4.000 argazkirekin bueltatu gaitezke, eta haien aukeraketa egin behar da.

Nork bere estiloa du?

Bai, Oihaneri gehiago gustatzen zaizkio erretratuak, lehen planoak; niri [Daniel] paisaia eta ingurua ere erretratatzeko gustatzen zait. Baina talde bat gara, gure artean ez dago lehiarik.

Nolakoa izan da erakusketa zabaldu arteko bidea? Beste herriren batera eramango duzue?

Kultura teknikariari proposatu genion, eta urtarrilerako jarri genuen hitzordua. Ordutik, aukeraketa bat egin dugu, gustuko irudiak tratatu eta inprimatu. Dena prest izan dugunean, beste herri batzuetara eramateko lana egin dugu, eta dagoeneko 2026 osorako erakusketak lotu ditugu beste areto batzuetan.

"Oso arrunta den arren, asko kostatu zitzaigun martintxoriaren argazki ona lortzea"

"Bidaia bakoitzetik 4.000 argazkirekin bueltatu gaitezke; gero, aukeraketa lana egin behar da"



Bonelli arranoa (Kordoba). 'PULSO'



Basakatua (Leon). 'PULSO'



Txitritxo handia (Kantabria). 'PULSO'



Katajineta (Nafarroa). 'PULSO'

"Tematu egin naiz aurrera egiten, eta gustura nago bide horretan"

IDOIA ALLENDE URIZAR DENDARIA

Dorleta Vidal

Malle-Azpi kalean 5 urte eman ondoren, Arteiz kaleko 8. zenbakira lekuz aldatu du bere denda Idoia Allende Urizarrek (Ermua, 1968). Urtarrilaren 13an inauguratu zuen saltoki berria –Mallabian dagoen bakarra–, bertako Udalak azpiegitura hura atondu eta gero. Lan horietan lau hilabete eta 87.152 euro inbertitu dira.

Kokapen aldaketaz gain, zeintzuk dira aurreko dendaren eta honen arteko ezberdintasunak?

Azaleran dago alderik handiena: aurreko lokalak hogeita hamar metro koadro zituen eta honek laurogei metro ditu. Horren ondorioz, produktu-aukera handitu egin dezaket, eta iradokizunak jasotzeko postontzia jartzeko asmoa daukat, herritarrek zer behar duten adierazi dezaten. Kokapenari dagokionez, oraingoa hobea da, pasoa dago.

Produktu gehiagorentzako espazioa izatea izan da lekuz aldatzeko arrazoi?

Ez; Osasun Sailaren araudira egokitu behar nuen, eta Malle-Azpiko lokalean ez zegoen lekurik. Osasun Sailak agindu-

tako betekizunak bi izan ziren: alde batetik, hestekiak saltzen ditudanez, konketa izan behar nuela aldean; bestetik, biltegia izan behar nuela dendan.

Zu arduratu zara egokitzapen horiek egiteaz?

Ez, lokalak Mallabiko Udalarenak dira, eta hark kudeatu ditu lanak. 2020an egin zuen bezala, 2025ean ere lokala atondu du eta lehiaketa publikora atera, eta ni izan naiz lehiaketetara aurkeztu den bakarra. Hala ere, lokala Udalarena izan arren, nik ordaintzen ditut gastu guztiak: hirukoiztu egin den alokairua –azaleraren arabera delako–, ura, argia...

Proiektu hau abiatu baino lehen, esperientzia zenuen saltokietan?

Hamabost urte ibili nintzen ostalaritzan lanean, eta ohituta nago jendearen aurrean lan egiten, gustukoa dut. Bestalde, lotura estua daukat Mallabiarrekin, ama hemengoa baita, gutun banatzaile egon nintzen hemen lanean... Negozioa zabaltzeko aukera ikusi nuenean ez nuen zalantzarik izan, pandemia garaia izan arren.

Beste denda batzuk egon dira herrian –supermerkatua, arrandegia, okin-

degia...–, eta guztiek itxi dute. Zerk egiten du desberdin zure denda?

Ez dakit. Ez nituen denda horiek ezagutu, eta ez dakit nola egiten zuten lan edo zenbat lagunek, baina hau pertsona batentzako lana da, ezinezkoa da hemendik bi soldata ateratzea.

Zer produktu mota saltzen dituzu?

Denetik apur bat: frutak, barazkiak, hestekiak, okela, elikagaiak orokorrean, esnea eta esnekiak, izozkiak, higie-ne eta drogeria produktuak, edariak, ogia, gozokiak, aldizkariak eta egunkariak... Gertuko ekoizleen produktuak ekartzen ere ahalegintzen naiz, eta ekologikoak.

Eta zein da erosleen profila?

Emakumeak dira gehienak, amamak, eta urteko egun guztietan datoz erostera. Beste multzo bat ere badago, 40 eta 60 urte bitarteko lagunek osatuta, astean

"Gazteak gehiago inplikatu beharko lirateke, zerbitzu honek aurrera egitea nahi badute"



Gertuko produktuak saltzen saiatzen da Idoia Allende. D. VIDAL

behin datozenak barazkiak eta produktu ekologikoak erostera. Eta ostiral arratsaldeetan ume-al-dra egoten da nire zain atean, gozokiak erosteko irrikan.

Orokorrean, erosketa txikiak edo handiak izaten dira?

Denetik dago. Batzuek gauza puntualak erosten dituzte, eta beste batzuek erosketa handia egiten dute; nagusiek, batez ere, Ermura jaisteko aukerarik ez daukatenak. Dena den, uste dut gazteak apur bat gehiago inplikatu beharko liratekeela, eta noizbehinka ogia erostera etorri, zerbitzu honek aurrera egitea nahi badute.

Aipatu dituzun pertsona nagusi horiei erosketak etxera eramateko zerbitzua eskaintzen diezu?

Ez; ez daukat denborarik, baina egia da hiruzpalau herritarri etxera eramaten diedala erositakoa, eurak ezin direlako etorri.

Maila pertsonalean, nola sentitzen zara ekintzaile gisa?

Ekintzaile baino gehiago, aurrera egiten tematu naizela esango nuke, eta gustura nago bide horretan. Hala ere, ez dut esaten erraza denik: egunero 06:30ean altxatzen naiz frutaren bila Durangora joateko, hona etorri, gauzak prestatu eta abar. Gainera, hilabete batzuk oso-oso zailak dira, baina jendeak asko eskertzen du ni hemen egotea, eta hori, egia esatearren, oso pozgarria da.

Euskararen esparruan ere ahalegina egin behar izan duzu...

Bai. Lehen ez nuen hitz bat bera ere euskaraz esaten, baina orain ausartzen naiz. Hanka sartuko dut makina bider, baina lotsa kendu dut, eta lehen hitza euskaraz esaten dut beti. Pozik nago, hizkuntzarekin ere trebatzen ari naizelako.

Auzo-taxiaren txartela berritzeko deia egin du Udalak

Ander Gomez

Mallabiko Udalak jakinarazi duenez, urte aldaketarekin batera, auzo-taxiaren identifikazio txartelak iraungi egin dira, eta 2026an taxi zerbitzua erabiltzeko asmoa dutenek txartela eskatu edo berritu beharko dute. Horretarako, udaletxera joan beharko dute, astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara bitartean.

Eskaera egin ahal izateko, dokumentazio hau eraman beharko da: nortasun agiriaren fotokopia eta gidabaimen tamainako argazkia. Txartel hori pertsonala eta besterenezina da, eta, behin onartuta, 2026ko abenduaren 31ra arteko balioa izango du.

Taxi egokitua

Mallabiko taxia aulki gorpilduna erabiltzen duten pertsonentzat egokituta dago, eta, edukierari dagokionez, zortzi bidaiari arte eraman ditzake aldi berean.

Eguneratutako txartela dutenek bidaiari erreserbatu dezakete 656 78 88 24 telefonora deituta, eta bidaiari horiek astelehenetik ostiralera 07:30etik 20:00etara eta asteburuetan eta jaiegunetan 09:00etatik 14:00etara egin beharko dituzte. Auzotik herrirainoko zein herritik auzoetarainoko bidaiak hiru euroko kostua dute.

"Zerbitzu horri esker, garraio hurbil eta malgua eskaintzen zaie bizilagunei, udalerrri barru-



Taxi geltokia. ESTIBALITZ GONZALEZ

ko joan-etorriak errazteko eta mugikortasun segurua eta irisgarria bermatzeko", adierazi dute udal arduradunek.

AMAIA HARATEGIA

Bertoko Okelak

Probaleku 5
943 17 05 84
Ermua

juan10@yahoo.es
Ermua (Bizkaia)

TAXI

Juanan
635 70 90 90

AMALUR
FISIOTERAPIA

688 619 896
Zeharkale, 12 behe
48260 ERMUA

IRENE ESQUÉ col 1666 EGOITZ FORMOSO col 1675

Historia, osasuna, teknologia, aisialdia... gai ugari langai 'jendartEkin' proiektuan

Hamabostean behin ari dira egiten 55 urtetik gorakoentzako ekimenen bat

Ubane Madera Zangitu SORALUZE

2025a bukatu zuen ildo beretik hasi du 2026a *jendartEkin* proiektuak: jo eta su. Joan den astean izan zuten lehen ekimena, Javi Elortza historialariak gidatutako ibilbidea Soraluzeko hiribilduaz. Aste honetan, teknologia berrien (IKT) hamabosteroko lanketarekin segitu dute, Niko Morillo adituaren eskutik, eta otsailean, Bilbao Orkestrako zuzendari Iñigo Alberdi soraluzetarrak musikari buruzko tailerra emango du.

"Askotariko gaiak"

JendartEkin proiektua dinamizatzen diharduen Ana Maiztegi zinegotziak esplikaturakoaren arabera, "askotariko gaiak" lantzeko ekimenak antolatzen segitzeko asmoa dute. Esaterako, "Historia gaiekin jarraituta, Ramon Leturiondoren bigarren



Javi Elortza historialaria, hiribilduari buruzko azalpenak ematen, joan den astean.

ekitaldia egingo dugu Iñigo Alberdirenaren ondoren, eta, eolikoekin gaia pil-pilean dagoenez, martxoan energia berriztagarrien gaineko hitzaldia egiteko asmoa dugu; aurrerago, berriz, Javi Elortzarekin herrien mugei bu-

ruzko lanketa egin nahi dugu, ikusteko moduan dauden mugarrin ibilbidea eginez".

Abadia Gaztelura bisita...

Hori gutzia borobiltzeko irteerak ere egingo dituztela adierazi du

Maiztegi: "Elgoibarrera, Maki-na Erremintaren Museora. Bilboko Arte Erderen Museora ere nahi dugu joan; akaso, Bergara Monumentala ibilaldia ere egingo dugu; eta, bukaerako ekintza modura, Hendaiako Abadia Gaztelu-Behatokia bisitatuko dugu".

Azkenik, "sistematizatu barik" baina abian duten beste esparru bat ere landuko dute: kolaborazioak, Soraluze BHI Institutuarekin zein Udal Liburutegiarekin. Azken horren kasuan, adibidez, e-liburutegia eta e-filma online zerbitzuak erabiltzeko tailerra emango du liburutegiak, eta *jendartEkin*-eko kideek ere parte hartuko dute.

"Bizialdi osoko ikaskuntza"

JendartEkin 55 urtetik gorako pertsonen esperientziak trukatu eta ezagutza berriak eskuratzeko proiektua da. Helburua da ezagutza, kultura, balioak, gaurkotasuneko gaiak eta abar eskuratzeta eta transmititzea, eta baita belaunaldien arteko harremanak sustatzea ere.

2024an abiatu zuen ibilbidea, Hezkuntza Proiektutik eratorritako eta "bizialdi osoko ikaskuntza jarduteko ideian" oinarrituta.

Lantzen dituzten ekimenak, berriz, proiektuko kideen partaideek elkarrekin adosten dituzte. Aurten, 25 partaide ditu.

Orain arte, denetariko ekimenak egin dituzte: politikari, gizarte gaiei, osasunari, kirolari eta abarri buruzko hitzaldi-tailerrak; Soraluzeko historiari buruzko ibilaldi gidatuak, irteerak eta, besteak beste, teknologia berrien erabilerarekin lotutako jarduerak. Azken horien kasuan, Niko Morillo adituak gidatuta, hamabostean behin lantzen dute gairen bat.

Osterantzean, gonbidatu entzutetsuak ekarri ditu Soraluzera *jendartEkin* proiektuak; batzuk aipatzearren, Juanjo Alvarez abokatu eta katedraduna, Amets Arzallus bertsolari eta idazlea, Ramon Leturiondo eta Javier Elortza historialariak, Silvia Arribas doktore soraluzetarra eta beste hainbat. Hala, belaunaldien arteko harremanak sustatzeko ibilbidean, Institutuko ikasleekin hainbat ekimen egin dituzte. Eta irteerei dagokienez, Leintz Gatzagan eta Gatz Museoan, Bergarako Laboratorium museoan eta Donostia-ko San Telmo museoan izan dira.






Makinaria salmenta eta konponketa

TXURITXU GOZOTEGIA

Astelehenetik ostiralera: 08:30-13:00 eta 16:30-20:30 Larunbata: 08:30-13:30
Igandeak: 08:30-14:30



Gosariak, ogia, prensa, pastelak, bonboiak...
Etxera eramateko zerbitzua

Tel. 943 75 24 43

**ION MURGIZU BAKAIKOA
PINTOREA**



arrunta
dekoraziokoa
industrialia

Tel. 943 75 13 24 Mug. 652 77 70 30

ODR perfiles

ATEAK ETA LEIHOAK

Mota guztietako leihoen, pertsiak, ateak, barandilak salmenta eta konponketa

ALUMINIO ETA PVC AROZTEGIA

T. 662 234 609
Sagar Erreka Kalea 2 - 20590 SORALUZE
e-mail: odrleioak@gmail.com

Belarrak

lora eta belardenda



Elkagail ekologikoak
Etxerako zerbitzua

Santa Ana 22
943 75 30 11

MGS Seguros

Veronica Galaraga
Gertukoa eta segurua



Astelehenetik ostiralera: 10:00 - 13:30 eta 17:00 - 19:30 Santa Ana 13
Tel. 665 744 055



KM design

Kiru Muntaiak

943 76 99 85

kirumuntaiak@yahoo.es
www.kmdesign.es

■ Diseinua eta Fabrikazio lanak

Sukaldeak
Horma-armairuak
Logelak
Zoruzak
Ateak...

■ Arotzeria lanak oro har
■ Instalazioak

Pol. Amillaga 5
BERGARA

BOLIA

TABERNA



Pintxoak, ardoak, konbinatuak
Gazte-giroko festa

SORALUZE MOTOR

Mendiola ind. 13
Soraluze

676 556 817 - 943 75 21 38



itv

MENDIZABAL
okindegia

Ogia - Prentsa - Gosariak



Astelehenetik ostiralera: 08:00 - 13:00
17:00 - 20:00
Larunbata eta igandeak 08:30 - 13:15

Kalebarren 10
Tel.: 943 75 13 99

IZAGUIRRE
Igeltseritza



Eraikin berriak - Kalitatezko emaitza
Erreformat - Era guztietako igeltseritza

50 urteko esperientzia - 610 638 913



**ELIZPE
HORTZ KLINIKA**

Tel. 943 75 25 67

Euskalzaletasunaren alde:





OKELLA HARATEGIA



- Enkarguak hartzen ditugu
- Gertuko ganadua
- Etxeko tripaki, txistorra, saltxitxa eta mingaina

Etxaburueta 5
Telefonoa: 943 75 23 75

Armendi Jatetxea

Sukalde tradizionala
Eguneko menua
Asteburuetan menu berezia
Karta
Burduntzian erretako bildotsa
Etxeko fritoak
Souflea

Tel.: 943 75 10 02



Txoko

Eguneko menua, plater konbinatuak, hanburgesak, ogitartekoak, razloak, pizzak, gosaria...

Enkarguak egiten dira

Tel. 943 75 17 89



Oreka Art galeriaren etorkizuna bermatzeko proiektua lantzen ari dira

Fundazio edo patronatu bat sortzea proposatu du galeriaren kudeatzaileak

Ubane Madera Zangitu SORALUZE

Oreka Art galeriaren orain arteko ibilbidearen azken urtea izango da aurtengoa, ibilbide berri bati ekin aurrekoa. Sor-luzeko arte galeriaren sortzaile, bultzatzaile eta kudeatzaile Alberto Ramirezek esplikatu duenez, 2026a bukatu arteko programazioa itxita dauka. "Aurten, arte egiptoarraren erakusketa bat egingo dut; Euskadin halako bi daude bakarrik. Azaroan, berriz, Picassoren obren erakusketa, tartean, hark sinatutako obrekin, eta asmoa da urtea Tapiesen erakusketa batekin ixtea; haren hamahiru grabatuz osatutako karpeta bikainarekin. Amaiera hori emanda, galeriako nire orain arteko ibilbidea amaitutzat eman eta, etorkizunean, autoritateek nahi dutenaren arabera jarduera izango du galeriak".

Erakundeen esku

Izan ere, Ramirezek gertu du erretiroa, baina, atsedean hartzen hasi aurretik, arte galeriaren etorkizuneko proiektua marraztuta nahiko luke laga.

Ildo horretan, proposamen zuzena egin dio, zehazki, Sora-



Alberto Ramirez Oreka Art galerian, eguaztenean. U.M.Z.

luzeko Udalar: Oreka Art kudeatzeko fundazio edo patronatu bat eratu dezatela, etorkizunean haren bitartez erakusketak antolatzen segitzeko eta erakusketak jendaurrera zabaltzen segitzeko.

Ramirezek gaineratu duenez, konpromiso hori ipar, hurrengo erakusketaren inaugurazioan – *Amalgama Grafica Internacional XI* izenekoa –, hango bi obra emango dizkio Udalar, eta, aurrerago, bere bilduma partikularretik beste 150 obrako donazioa egingo du, tartean, galerian egon

diren artisten lanak, "haiek gordetzeko, erakusteko eta ikertzeko espazio bat sortzeko konpromisoarekin".

140 erakusketa inguru

Ramirezek azpimarratu du Sor-luzeko galeria dagoeneko erreferente bat dela artearen munduan, prestigio handia duela, eta, haren eskutik bide oparoa egin ondoren, ez litzatekeela ixten laga behar. "2009an galerista moduan hasi nintzenetik, ez naiz geratu ere egin erakusketak antolatzen, doan,

eta erakusketak zaintzen ere neu nabil, egunero-egunero, nire laneko ordutegia bete ondoren".

Kopurutan, kontatu duenez, "Oreka Art galeriaren oraingo egoitzan 80 erakusketatik gora" egin ditu. "Lehenagoko aretoan, eta, Ermuko Lobianon egindako erakusketak kontuan hartuta, 140 bat erakusketa antolatu ditut. Horri gehitu behar zaio hemen dagoen funts artistikoa. Bene-benetan da ikaragarria. Galeriatik pasatu diren artista guztien eta pasatu ez diren beste hainbaten obrak daude funts horretan. Pentsa, 15 urte nituenetik ari naiz arte bilduma eginen. Aurten, inbentarioa egingo dut, eta, hain justu, bilduma horretatik emango ditut donazioan 100 artelan".

Erakutsi egin behar da

Baina halako donazio bat kudeatu egin behar dela argi dio Ramirezek; haren ustez, artea, bai edo bai, erakutsi egin behar da. "Artelanak ezin dira biltegi batean gordeta egon; ez badira erakusten, artelanak ez dira existitzen, eta Sor-luzen sortuta dago espazio bat horretarako, eta espazio horrek, Oreka Art galeriak, dagoe-

140

ERAKUSKETA

2009an galerista ibilbidea hasi zuenetik, 140 erakusketa baino gehiago antolatu ditu

neko egin du ibilbide esanguratsu bat. Ikusleei dagokienez, kanpotik herritik baino jende gehiago etortzen da galeria bisitatzerara, eta neu beti ahalegindu izan naiz maila handiko erakusketak antolatzen".

Lokala propio egokituta

Halaber, galeriari dagokionez, gogora ekarri du horretarako propio egokitu zuela lokala, galeria izan zedin, obra handia eginez, 2021eko martxoan zabaldu baino lehen. "Ate blindatuak ditu, beirate erraldoiak eta trenbidearen altzairuzko habeak ditu eustorma moduan. Berez, bi lokal ziren eta guztia eraldatu nuen", esplikatu du.

Bost urte

2021eko martxoan zabaldu zuen Oreka Art Galeria Alberto Ramirezek. Lehenago ere izan zuen Sor-luzen arte galeria, hura ere Oreka Art izenarekin. 2009an zabaldu eta 2011n itxi egin behar izan zuen, krisi ekonomikoaren ondotik. Baina haren pasioan tematu, eta, "Robin Hooden moduan" erabaki zuen berrirori ere zabaltzea arte galeria Sor-luzen; oraingoan, lokal propioarekin.

Azaroan, Picassoren erakusketa egingo du eta urtea ixteko, Antoni Tapiesen beste bat

Berritasunak eta bazkide berriak Katamarran ume-txokoan

Azken matrikulazioekin, orain 47 familia-bazkide dira bertan

U.M.Z. SORALUZE

Ate irekien jardunaldia eta bazkide kanpaina egin berri ditu Katamarran ume-txokoak, eta, jakinarazi dutenez, "oso pozik" dira bi ekimenek emandako emaitzarekin.

Talde eragileak esandakoaren arabera, ate irekien jardunaldian, "2025. urtean jaiotakoen kuadrillatxo bat egon zen" eta bazkide kanpainaren bueltan hamar matrikulazio berri izan dira. Are gehiago, hainbat familia matrikulatu eta berehala hasi dira ume-txokoa erabiltzen.

0-5 urtekoendako

Bestalde, berritasunekin estreinatu du urtea Katamarranek, 2026an hasita handitu egin baitute ume-txokoa erabiltzeko adin tartea. Orain arte 0-4 urte bitartekoentzako zerbitzua zena 0-5 urte bitarteko umeentzako izango da.

Talde eragileak azpimarratu du 0-5 urte bitarteko edozein umek erabil dezakeela lekua, betiere, lekuaren momentuko edukiera kontuan hartuta. "Badaude kanpoan bizi diren sor-luzetar batzuk bazkide direnak;



Hainbat guraso eta ume ate irekien jardunaldietan. U.M.

azkenean, hemen pasatzen dute denbora asko aita-taitekin eta amarekin", esan dute.

2024ko apirilean zabaldu zuten Katamarran ume-txokoa. Eta urtetik urtera handitzen doa zerbitzuaren erabilera.

Ireki zen momentuan, 37 familiak eman zuten izena; 2025eko abenduan, berriz, dagoeneko 42 familia-bazkide ziren erabiltzaile; eta gaur egun, azken matrikulazioekin, 47 bazkide ditu zerbitzuak.

Bihar, zuhaitz landaketa eta exotikoen kontrola egingo dituzte

Bihar, hilak 24, landaketa eta landare exotikoen kontrol jardunaldia egingo dute, Sor-luzeko Baso Biziak taldearen eskutik eta Lurgaia Fundazioko adituen elkarlanarekin. Antolatzaileek herriarrei ekimenaren parte hartzeko gonbidapena egin diete.

Gaztandolan egingo dute jardunaldia, Sagar Erreka inguruan. Hori horrela, GOL enpresaren aparkalekuan egin dute hitzordua, 09:30ean bertan elkartu eta landaketa-lekura elkarrekin joateko. Ohi denez, bazkalordurako etxera bueltatuko dira, baina lehenago, landaketaren ondoren, hamaiketako egingo dute, antolatzaileek gonbidatuta.

Kaldereroen kalejira prestatzeko entsegu irekiak egingo dituzte bihar eta hilaren 31n

Izaro Aulestiarte

Azken urteotan bezala, Kaldereroek kalejira egingo dute aurreten ere Inauterien atarian, zartaginak eta mailuak eskuan dituztela. Otsailaren 7rako jarri dute hitzordua, 19:00etan, Agirre jauregiko plazatik abiatuta. Aurrez, dena den, bi entsegu egingo dituzte: bihar, urtarrilak 24, izango da lehenbizikoa, eta hurrengo larunbatean, urtarrilak 31, bigarrena. Musika Eskolako dantza gelan egingo dituzte saioak, 11:00etan hasita.

Gure Kai Euskal Dantzari Taldeko kideek azaldu dutenez, kalejiran egingo dituzten kantak eta dantzak prestatzeko aukera izango da entseguetan –aurreten sei abesti eta hiru koreografia izango dira guztira–. Saio irekiak izango dira, "nahi duten guztiek" parte har dezaten, eta herritarrei bertaratzeke dei egin diete antolatzaileek. Nolanahi ere, gogorazi dute desfilean irteteko

ez dela derrigorrezkoa entsegutara joatea.

2020az geroztik

Urte luzez galduta egon ondoren, 2020. urtean berreskuratu zen Deban Kaldereroen etorrera, eta urtez urte indarra hartzen ari da ekimena. Horren erakusgarri

da azken urteotako desfileetan bildutako partaide eta ikusle kopurua. Seigarren aldi honetan ere, Gure Kairi, Udalari, Kanean Kantuzi, Aitzuri Abesbatzari, Debako Kontalariei eta, besteak beste, Musika eta Dantza Eskolako kideen laguntzari esker egingo da ikuskizuna.



lazko desfilean ateratako argazki bat. N.B.A.

NIRE USTEZ

Tirabirak



IGOR LARRAÑAGA

Euskara gorroto zuela esan zidan 20 urteko ikasle batek lasai asko bere ikaskide guztien aurrean, ampere, watt eta zirkuitu elektrikoak zehazten ari ginen bitartean. Badira nahi baino

gehiagotan entzungor egin ezin diren disrupzioak; tamalez, homofobia, xenofobia edota adierazpen matxistak moztu beharrean egoten baikara irakasleok.

Ikaslearengana zuzendu eta gorroto horren zergatiaz interesa adieraziz, umea zela eskolan irakasleren batekin euskararen erabileraren inguruan izandako *tirabira* batzuk aipatzen ditu, inongo zehaztapenik eman gabe.

D ereduan irakasle izan nintzen urteak gertu ditut oso, eta erraz irudikatu ditut klasean izandako zailtasunak; ohikoena, D ereduko ikasleek egun osoan euskaraz hitz-erdi egiten ez zutenekoa, eta egoera horiek kudeatzeko *tirabirak*. Txanponaren beste aldean, ordea, *tirabira* horiek izan ditzaketan albo-kalteak ditut aurrez aurre, euskal zaletasuna indartu nahian euskarafobia elikatu dezakegula.

"Ipuin kontaketak euskaraz eta japonieraz egitea amesten nuen"

ANE BASTIDA LIZASO IDAZLEA

Japonierara itzuli dute 'Hideane eta bere lagunak' liburua

I.A.

Apuleyo argitaletxeak *Hideane eta bere lagunak* (Denonartean) Ane Itziar Bastida Lizasoren (Deba, 1977) liburuaren japonierazko itzulpena plazaratu berri du. Hide Dohinok, Naoki Adachik eta Ryotaro Yamajik egin dute hurrei zuzendutako istorioaren itzulpena. Idazleak aurreratu duenez, Japonian bertan ere aurkeztuko dute argitalpena, apirilean, ziurrenik, oraindik data zehaztu ez badute ere. Bien bitartean, "poz-pozik" dago idazleak, liburuak orain arte egindako bidearekin "gustura".

2023an aurkeztu zenuen Nadia Beltran de Lubianoren irudiekin osatutako album ilustratua, eta lanak bere bidea egiten jarraitzen du. Euskaraz, gaztelaniaz eta katalanez irakur zitekeen gaurdaino; orain, japonieraz ere bai. Nolatan? Euskara eskolak ematen nizkion ikasle ohiaren izena [Hide] eta nirea elkartzu sortu nuen liburu protagonista, Hideane, 11 urteko neskatxa japoniar euskalduna. Horregatik, Euskal Herriko kulturak eta Japoniakoak bat eginez, ipuina elkarlanean euskaratik japonierara itzultzea erabaki genuen. **Ipuina japonieraz kaleratzea erronka berezia izan da, ezta? Zuretzat amets bat zela aitortu izan duzu noizbait.**

Bai. Ipuin kontaketak euskaraz eta japonieraz egitea amesten nuen, eta erronka horretan murgilduta gabiltza, esne-mamitan, poz-pozik! Lehenengo saioak



Ane Bastida idazlea. N.B.A.

Deban, Gasteizen, Bastidan, Bilbon eta Elgetako liburutegian egin nituen, Hiderekin. Azkenetan, berriz, Ryotaro [Ibai] eta biok aritu ginen, Lazkaoko Maizpiden eta Urueñako Kinari Books liburu-dendan.

Aurkezpen-ekitaldirik egingo al duzu Japonian?

Bai, hori da asmoa. Apirilean Japoniara bidaiatzea aurreikusuten dugu; Ibai arduratzen da Tokion eta Yokohaman egingo ditugun aurkezpenak lotzeaz.

Liburuak beste hizkuntza batzuetan ere ikusiko al du argia? Aurrera begira, zer asmo duzu?

EHUko Erasmus taldean ditudan ikasleek beren ama-hizkuntzetara itzuli dute ipuina; hau da, frantsesera, galizierara eta txekierara. Ez dakit liburuak hizkuntza horietan plazaratuko ote den, baina orain arte egindakoarekin gustura nago jada.

Kolegiatu zkoa: 20001123

Amaia Esnaola
ODONTOLOGIA

Fermin Calbeton 19- 3 ezk. Eibar 943 20 72 17 | 680 42 28 08
amaia@esnaolaodontologia.com

IZENBE

Gosariak • Txikiteoa • Pintxoak

Itur kalea • 943 19 24 73 • DEBA

adats

ADATS ILEAPAINDEGIAK DEBA
Hondartza kalea 13 DEBA
T. 943 19 27 00

www.facebook.com/adatsileak
@adatsileak

Calbeton

JATETXEA

Agustin Larrañaga Elorza
Hondartza kalea 7,
20820 DEBA
943 19 19 70

Debatek
INFORMATIKA

Aholkularitza
Produktuen salmenta
Zerbitzu teknikoak

747 42 39 01
Debatek_

ieraenea
BERRONDO

"maite dituz nire/gure bazterrak"

Lensundi kalea 6, Deba
943 53 95 20
ieraenea@gmail.com

Martxotik aurrera, hilero emango dute NA eta pasaporteak izapidetzeko zerbitzua

Hileko lehen astelehenetan izango da bulego ibiltaria Foruen plazan

Alex Turrillas

Zerbitzu horren bidez, Deban bertan nortasun agiria (NA) eta pasaporteak egiteko edo berritze-ko aukera izango dute herritarrek, beste herri batzuetara joan beharrik gabe. Horrekin batera, NAREN ziurtagiri elektronikoa aktibatze-ko doako zerbitzua ere emango dute aurrerantzean.

Hitzordu libreak

Edonola ere, martxoan baino lehen ere izango da zerbitzu hori baliatzeko aukera. Izan ere, hurrengo data urtarilaren 28rako jarri dute, asteazkena, eta oraindik ere badaude hitzordu libreak egun horretarako. Udaleko iturriek gogorarazi dutenez, ezinbestekoa izango da alde aurretik txanda eskatzea, eta hilean hileko erreserba egin beharko da. Hau da, egun bateko txanda guztiak betetzean zabalduko



dute hurrengo hitzorduan izena emateko aukera.

Egun bakoitzeko 34 txanda emango dituztela jakinarazi dute. Hurrengo hitzorduan izena emateko aukera zabalik dago oraindik, Udaleko Herriarren

Arretarako Bulegoan aurrez aurre edo 943 19 28 40 telefonora deituta.

Beharrezko dokumentazioa

Zerbitzua 09:30etik 13:00etara bitartean emango da, eta tasak eskudirutan ordaindu beharko dira. NAREN kasuan, 12 euroko tasa ordaindu beharko da, eta pasaporte berritzeko, aldiz, 30 euro. Izapideak egiteko, ohiko dokumentazio ofiziala aurkeztu beharko da. Dokumentazio hori aldatu egiten da izapidearen arabera. Kasu guztietan –lapurretan edo galeran ez ezik–, ezinbestekoa da argazki bat eramatea, eta adingabeak badira, guraso batez lagunduta joatea. Edonola ere, kasu bakoitzean eraman beharreko dokumentazioaren informazioa eskuragarri dago dnielectronico.es atarian.

Giro onean joan dira sansebastianak



ELORRIAGAKO JAI BATZORDEA

San Sebastian egunarekin batera amaitu dira festak Itziarko Elorriaga auzoan. Ospakizunek iraun duten tartean giro ona egon dela nabarmendu dute jai batzordeko kideek. "Jende askok parte hartu du, eta horretan eguraldiak ere asko lagundu digu. Txosnan, esaterako, ezer gabe geratu ginen". Besteak beste, aipatu dute 60 bikotek parte hartu zutela mus txapelketan eta 92 pertsona elkartu zirela igandeko bertso bazkarian.

Bernardo Atxagaren 'Enarak' izango dute hizpide Irakurketa Klubean

Izaro Aulestiarte

Urtarrilaren 28an, asteazkenez, egingo du urteko lehenengo saioa Ostolaza Udal Liburutegiko Irakurketa Klubak. 19:00etan elkartuko dira partaideak eta Asier Serrano idazle eibartarrak gidatuko du solasaldia, euskaraz.

Bernardo Atxagaren (Asteasu, 1951) *Enarak* eleberriaz (Pamela) ariko dira hitzorduan. Urtain

da liburuko protagonista nagusia; pintore profesional bat, "azkena". Arroagoia inguruko mendietan girotuta dago kontakizuna eta enarak ere hor dauka, etengabe hegan segundoko hamar metro eginez. Bada, narrazio estilo arina eta ausarta baliatuta, eta enarak sinbolo iraunkor gisa hartuta, eleberriak intriga, umorea eta hausnarke-

ta uztartzen ditu, artearen, nortasunaren eta denboraren joanaren inguruan.

Izen-ematea, aurrez

Debako Udalak gogorarazi duenez, Irakurketa Klubean parte hartu nahi dutenek alde aurretik eman beharko dute izena. Interesa dutenek liburutegian bertan egin ahal izango dute izen-ematea aurrez aurre, baita telefonoz 943 19 25 60 zenbakira deituta edo ostolaza@deba.eus helbide elektronikora mezu bat bidalita ere.

'Txillarreko sukaldaria' aurkeztuko dute gaur Itziarren

Pello Rubiori egindako elkarriketan oinarritutako liburua eta dokumentala aurkeztuko dituzte gaur, urtarrilak 23, Kalebarreneko lokalean, 19:30ean. Itziarko Auzo Udalak eta Donibane Elkartek antolatu dute ekitaldia eta Asier Ibaibarriaga eta Edurne San Martin proiektuaren egileak bertan izango direla aurreratu dute.

2005-2006ko bake prozesura iristeko, bere etxean, Elgoibar-ko Txillarre baserrian, egin zituzten otordu-bileren berri ematen du Pello Rubiok proiektu honetan. Rubiok ezagutzen zituen eta politikoki elkarrengandik urrun zeuden bi lagun elkartu zituen bere etxean: Paco Egea eta Arnaldo Otegi, alderdi sozialistakoa bata eta ezker abertzalekoa bestea. Eta haien atzetik iritsiko ziren beste batzuk ere. Bortizkeria-egoeratik bake girora egiteko egin ziren bileren berri ematen du lanak.

Bar LOREA
Orotariko tartak etxean eginak
Angulero kalea, Deba • 943 19 10 95

ZALBURDI
Arakistain Plaza, 1
943 19 20 03 DEBA

Mikel ITURGINTZA
• GASA
• BEROKUNTZA
• ENERGI TERMIKO
ETA BERRIZTAGARRIAK
Hondartza 10, beheka - DEBA
943 19 17 74 / 699 97 52 06
info@mikeliturgintza.eus

ORAIN
ileapaindegia
943 19 21 09
Hondartza kalea, 2 - DEBA

LAMARIANO
Oinetakoak
Itur kalea 14 - Deba
943 19 12 52

SUKIA
FRUITU ETA BARAZKIAK
Lersundi 29, DEBA
943 19 23 86



Berihu Aregawi etiopiarra, helmuga-marra zeharkatzen. JOSERRA CABRERA



Winfred Yavi erakustaldia eginda gailendu zen emakumezkoen lasterketa nagusian. ASIER ORBEA



Yavik lehen parte hartzea zuen Elgoibarren. MIKEL ASKASIBAR.

ATLETISMOA

Mugertza krosa: hirugarren garaipena jarraian Aregawirentzat eta estreinakoa Yavirentzat

Jarraian lortzen duen hirugarren garaipena eskuratu zuen Berihu Aregawik (Etiopia, 2001) Mugertza krosaren 82. ekitaldian. Mariano Harok bakarrik lortu zituen hiru garaipen jarraian probaren aro modernoan, nazioartekotu zenetik. Emakumezkoetan, erakustaldia eginez gailendu zen Winfred Yavi (Bahrain 1999) txapeldun olinpikoa.

Asier Orbea ELGOIBAR

Lau kontinente eta hamabi herrialdetako 900 bat atleta lehiatu ziren aurreko igandean Mintxetan, adin tarte askotariko hamabi lasterketatan. Winfred Yavik ez zuen aurkaririk izan emakumezkoen proban, eta erraz irabazi zuen emaitzarik onenak 3.000 metro oztopoetako lasterketan lortutakoa den atletak. Proba horretan egungo txapeldun olinpikoa da Yavi, Parisen urrea irabazita, eta munduko

txapelduna ere izana da, 2023an. Sheila Jebet (Kenya, 2005) gaztea sailkatu zen bigarren postuan, eta Marwa Bouzayani (Tunisia, 1997) hirugarren postuan.

Aregawik, erraz

Gizonezkoen lasterketa nagusian tropelean ezkutatuta joan ziren faboritoak lasterketaren lehen itzulietan. Berihu Aregawik, baina, nahi izan zuenean laga zituen atzean aurkari guztiak. Aurreko zapatuan,

hilaren 10ean, txapeldunorde geratu zen Tallahassee (Florida, AEB) jokatu zuten Munduko Kros Txapelketan, eta sasoi puntu hori baliatu zuen Mintxetako zirkuituan hegan egiteko. Saymon Amanuel (Eritrea, 2007) sailkatu zen bigarren postuan, eta, atleta espainiarren arteko lehian, Said Mechaal sailkatu zen hirugarren postuan, Europako txapeldun Thierry Ndikumweanayori aurre hartuta.



Mintxetako zirkuituko aldapa ezagun eta gogorrenetakoa. ASIER ORBEA



Ia 900 atleta lehiatu ziren hamabi lasterketatan. ASIER ORBEA



Etxera itzultzeko deia lempaean antolatzen duen Ermua CDk beterranoen arteko partida, 75. urteurreneko lehen ekitaldia. ION ALCOBA

FUTBOLA

"Ermuarrek Ermuko taldea babestea lortu nahi dugu urteurreneko ospakizunekin"

AITOR ALVAREZ ARRUTI
ERMUA CD FUTBOL TALDEKO PRESIDENTEA

Egindako lanari balioa eman, eta ekitaldi bereziekin ospatu nahi du 75. urteurrena zuzendaritzak

Ander Gomez ERMUA

Klubaren armarrarian islatzen den moduan, pilota eta mendizaleen elkarte bezala ere sortu zen Ermua CD, 1951ko maiatzaren 11n. Baina Aitor Alvarezek (Ermua, 1971) futbol talde bezala soilik ezagutu zuen. Bizitza osoa eman du klubari lotuta: zale, jokalaria, entrenatzaile... izan da, eta orain, presidente dela ospatuko ditu taldearen 75 urteak.

Zer da herriarentzat urteurren hau?

Ba, azkenean, herritik sortutako elkarte bat da eta 75 urte betetzea izugarria da. Gauza batzuk txarto egin dira, batzuetan desagertzekotan egon da... baina denon lanarekin –gurea eta egon direnena– lortu da, eta ospatzekoa da hori.

Eta zuretzat? Presidente izanda...

Niretzat, polita. Azkenean, klubari lotuta egon naiz txikitatik, aita entrenatzaile zen eta harekin joaten nintzen beti. Tokatu zaigu eta pozik, baina ez gara sartu

horregatik; batez ere, askoz lan gehiago dakarrelako: betikoa eta urtean zehar egingo ditugun ekitaldi guztietan egin beharrek; kar-kar.

Egitarraren lehen ekintza egin duzue jada, beterranoen partida.

60 lagunetik gora izan ginen eta jende mordoa etorri zen ikustera. Gero, elkartean afaldu genuen, gazteak ere etorri ziren... eta, borobiltzeko, guztiak egin ziren bazkide, kanpoan bizi direnak ere bai. Hori nahi dugu, ermuarrek Ermuko taldea babestea.

Kamiseta eta ereserki berriak aurkeztu ziren egun hartan.

Retro estiloko kamiseta bat egin eta pentsatu genuen, 30 urte atzera janzten genituen modukoa: marraduna, lepo klasikoarekin, praka urdinekin beltzak beharrean... Armari berria ere badugu, arrebak [Izaskun Alvarezek] diseinatu du, eta lehen bi taldeek eramango dute. Bestetik, uste genuen 75 urterekin bazela



Aitor Alvarez presidentea. ION ALCOBA

ordua ereserki bat izateko. Ez genekien nola egin, eta behin, pote bat hartzen geundela, Aitor Losadarekin topo egin eta proposatu egin genion. Ermuko musikari erreferentea izanik bagenekien lan txukuna egingo zuela, eta hala izan da. Gainera, grabaketan klubeko neska-mutil, entrenatzaile eta zuzendaritzako kide batzuek korrak egin ditugu. **Mezu polita du, motibagarria da, eta, gainera, euskaraz.**

Bai; beterranoen partida egunean kantatu zuen Aitorrek eta hunkigarria izan zen. Hizkuntzari dagokionez, garbi geneukan hala behar zuela, hori baita klubaren helburuetako bat, euskararen erabilera sustatzea. Sare sozialak ere indartu ditugu, eta hor euskararen lehenesten dugu beti. Udalak zoriondu egin gaitu, hizkuntzaren erabileragatik, mezuagatik, argazkiengatik eta hedapenarengatik: argitalpen batzuk 19.000 ikustaldira ailegatu dira. **Hizkuntzaz eta sare sozialez gain, ze beste alorretan jarri duzue esfortzua?**

Sartu ginenetik garbi geneukan ez genituela taldeak jokalarien mailaren arabera egin nahi; hau da, txikitatik *onak* eta *txarrak* bereiztea. Kategoria gazteetan, batez ere, jokalariek euren lagu-

nekin egon nahi dute. Horregatik, A, B, C... beharrean, eskolakako formatua berreskuratu dugu: Anaitasuna, Eskolabarri, San Pelayo... Jokalari gehiago eta gusturago egotea lortu dugu, eta kirola praktikatzeko; hori da eta inportanteena. Orain, 2020ko umeak entrenatzen ari gara, ia ia baloia baino txikiagoak, eta sekulakoa iruditzen zait.

Emakumezkoen talderik ez dago; egon liteke mendeurrenerako?

Horretan gabiltza. Eskola mistoa da eta neska alebiren taldea daukagu; txikitatik hasi nahi dugu. Bestela, bi urte daramatzagu nagusien taldea sortu nahian, badaude eta beste herri batzuetan jokatzen duten ermuarrek: Basaurin, Elorrión, Eibarren... Kontuta da asko goi-kategorietan daudela, eta zaila da, baina horretan jarraituko dugu. **Bitartean, gizonezkoak emaitza bikainak izaten ari dira. Mailaz igoko dira aurtun?**

Espero dut baietz. Justu bigarren itzulian gaude, eta momentu kritikoa izan ohi da, erabakigarriak izango dira datozen partidak. Baina orain arte oso ondo joan da dena, bigarren gaude sailkapenean, eta, hala bukatuz gero, lurralde mailatik preferentera igoko ginateke. Mundiala litzateke, etxean izango delako azken hitzordua.

Etorkizunari begira, badaukazue kluba hobetzeko proiektu berezirik?

Ez, orain arte lortutakoa mantentzearekin lan nahikoa eta soberan daukagu; kar-kar. Urte hau ospatzeko momentua da. Baina betidanik izan dudan amets bat da herriko bi taldeak [Ermua Blues eta Ermua CD] elkartzea, bere garaian San Antoniorekin gertatu bezala. Ederra litzateke futbolarentzat eta herriarentzat guztiok indarrak batzea eta kanpoan Ermuaren izena batera defendatzea.

Hurrengo ekitaldiak

Apirilak 11, zapatua
MONROE TXAPELKETA

Kadeteek eta bi talde erreferenteak Monroe Txapelketaren IX. aldia jokatuko dute. Txistulariek, txalapartariak eta dantzariak girotuko dute hitzordua.

Maiatzak 17, domeka
AZKEN PARTIDA

Ermua CDk denboraldiko azken partida jokatuko du etxean, Ezkurdi KTren kontra. Elektrotxaranga eta klubaren historia jasoko duen argazki erakusketa egongo dira.

Uztailak 3, barikua
ESKOLA EGUNA

Futbol Eskolaren lagunarteko txapelketa jokatuko da San Pelayon. Umeentzako musika egongo da; opariak –Ermua CDren giltzatak guztientzat– eta ogitarteak eskuratu ahaliko dira txosnan.

Uztailak 4, zapatua
EKITALDI NAGUSIA

Urteurreneko ekitaldi ofiziala egingo da Ermua Antzokian: bertso saioa, sari-banaketa eta dokumental-proiektzioa. Herri-bazkaria, txosna eta kontzertuak ere egongo dira.

Iraila (data zehazteke)
ATHLETIC-REALA

BETERRANOEN PARTIDA

Ermua Hiria txapelketa jokatuko da, eta Real Sociedadeko eta Athletic Clubeko jokalariei ohien kontra lehiatuko dira Ermua CDko beterranoak.



Jardunaldien aurkezpena, Coliseo Antzokian, Jose Luis Baroja Colletek diseinatutako kartela eskuetan. EGOITZ UNAMUNO

Egoitz Unamuno Loidi EIBAR

Eibarko 49. Antzerki Jardunaldiak aurkeztu zituzten martitzenean Eibarko Udaleko ordezkariak, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariekin batera, eta Jose Luis Baroja Collet artistak diseinatutako kartelarekin. Eibarko jardunaldiak Debabarreneko eta EAEko urteko hitzordu kultural garrantzitsuenetakoa dira, eta aurtengo edizioak, 50. urteurrenaren atarian, askotariko antzerki obren eskaintza aberatsa dakar.

Urtarrilaren 23tik martxoaren 27ra bitartean, 23 antzerki-konpainiak formatu eta gai askotariko 27 obra egingo dituzte Eibarren, bi kalean eta gaine-rakoak ohiko lekuetan: Coliseo Antzokian eta Uni-Eibar erai-kineko aretoan.

Konpainien jatorriari dagokionez, aurtun, Madril, Valentzia, Gaztela-Mantxa, Galizia, Extremadura eta Andaluziako konpainiak izango dira Eibarren, baina euskal konpainiek eta euskarazko antzezlanek ere pisu nabarmena izango dute jardunaldietan. Guztira, bederatzi dira programatu dituzten euskarazko antzezlanak.

Imanol Arias gonbidatu nagusi Jardunaldiak otsailaren 9an hasiko dira, ohiko solasaldia-ekin. Aurtun, Imanol Arias aktorea izango da solasaldiko protagonista Coliseoan. Aurkezpenean nabarmendu zutenaz,

ANTZERKIA

Eibar neguko antzerkiaren hiriburu bihurtuko da, 49. aldiz, 27 antzezlanekin

Urtarrilaren 23tik martxoaren 27ra bitartean, Eibar antzerkiaren erakusleihu nagusi bihurtuko da. Hogeita hamar egunetan, puntako konpainiak eta antzezlanak izango dira herrian

Ariasentzat Eibarrera etortzea "etxera itzultzea" da, eta, hain zuzen, ermuarrak *etxea* izango du hausnarketarako gai nagusi *La casa* izenburu duen solasaldian. Aktoreen bizitzan etxea zer den eta, haren esperientziatik, etxetik kanpo tarte luzeak igaro dituenen etxearekin izan duen harremanaz jardungo du. Hurrengo egunean, otsailaren 10ean eta 11n, aktore ermuarra taula gainera igoko da eta *Mejor no decirlo* komedia egingo du, Maria Barranco aktorearekin batera.

Eskaintza zabala

Antolatzaileen esanetan, programazio "eklektikoa" eta publiko guztiei zuzendua prestatu dute. Programatutako 27 obren artean denetariko generoak daude: bederatzi komedia, sei tragikomedia, lau drama, bi umeentzakoak, bi dantza ikuskizun, bi kale-antzerki, tragedia bat eta clown ikuskizun bat.

Euskarazko obren artean hauek daude: *Kandida*, Tartean konpainiaren antzezlan; Artedramaren *Nor naizen baneki*; Ge-

tari Etxegaraireren *Loreen hizkuntza*; Kepa Errastiren *Kaka*; *Kolapsoa* tragikomedia, Erika Olaizolak eta Xanti Agirrezabalak interpretatua; *Zanbuila*, Lolak Kolektiboarena; Markelñe konpainiaren *Hodei guztien gainetik* umeentzako obra; eta *Egin bedi zure nah-ia* dantza ikuskizuna, Dantzertiko laugarren kurtsoa ikasleen eskutik.

Gaztelarazkoak, berriz, hauek izango dira: *Mejor no decirlo* komedia; *Casting Lear*, Shakespearearen *Lear Erregea* lanetik abiatzen dena; *Contra Ana*, Alma Garciaren autofikzioa; *Dysphoria*, identitate transa jorratzen duen drama; *El peor espectáculo del mundo*, Txubio Fernandezek antzeztua; *La barrara*, Blasco Ibañezena; *Hasta el último baile*, Eva Guerreroarena; *Quimera*, kale-antzerkia; *A la gloria con Gloria Fuertes*, clown ikuskizuna; *Preguntamelón*, Millan Salcedorena; *52 hercios*, Joseba Apaolazak eta Ainhoa Aierbek antzeztua, besteak beste; *El Dragón de oro*, Galiziatik datorrena; *Jason y la furia*, tragikomedia klasikoa; *Cantando bajo las balas*, Ane Gabarainek antzeztua; *R&J*, Shakespearearena; eta *El encargo*, Eibarko Red Teatro konpainiarena.

Sarrerak salgai 24an

Sarrerak urtarrilaren 24tik aurrera jarriko dituzte salgai, online, 10:00etan hasita, Kutxabanken webgunean. Sarre- ra fisikoak, berriz, urtarrilaren 26tik aurrera, astelehen eta ostiralean, 17:30-19:30 bitartean, Coliseoko leihatilan. Prezioak 5 eta 20 euro bitartekoak izango dira eta Coliseoaren Laguna txartela dutenek %30erainoko deskontuak baliatu ahaliko dituzte.

23 antzerki-konpainiak formatu eta gai askotariko 27 obra egingo dituzte

Sarrerak urtarrilaren 24tik aurrera jarriko dituzte salgai online, goizeko hamarretan hasita

Nabarmenduak



Mejor no decirlo

Aktoreak: Imanol Arias eta Maria Barranco
Otsailaren 10ean eta 11n, Coliseo Antzokian



Kandida

Aktoreak: Miren Gaztañaga, Mikel Martinez eta Nerea Mazo
Otsailaren 18an, Coliseo Antzokian



Nor naizen baneki

Gidoia: Harkaitz Cano, Ximun Fuchs
Otsailaren 24an, Coliseo Antzokian



Dysphoria

Zuzendaria: Maria Goiricelaya
Otsailaren 26an, Coliseo Antzokian



Programa osoa ikusteko, eskaneatu QR kode hau.

SANTA ESKEA

Santa eskeko taldeak prest dira kantu-errondan eta eskean irteteko

Lurra makila kolpez esnatzeko tradizioari eutsiko diote dozena bat taldek herrietan otsailaren 4aren bueltan

Ainara Argoitia MENDARO

Otsailaren 5a da Santa Ageda, eta makilekin lurra joz natura lozorrotik ateratzeko eta negu gorria bukatzera doala ospatzeko eguna da bezpera. Hori xe da etnografoek egun horri ematen dioten zentzua, baina, zentzu etnologikoaz gain, beste helburu bat ere izan du aspaldiko urteetan Santa Ageda bezperak: eskea. Kantu-erronda eta eskea eskutik joan dira aspaldiko urteetan, eta horretara irtengo dira santa eskeko taldeak. Bezpera da, tradizioz, kanturako eguna, otsailaren 4a, eta hala izango da aurten ere askorentzat. Beste zenbait, berriz, otsailaren 1ean edo 7an irtengo dira, asteburuarekin. Orrialde honetan bailarako herrietako taldeen plana jaso du BARRENAk.

Ermuan, 33 urtez

Herritar talde baten ekimenez mantendu dute Ermuan santa eskea 33 urtean, eta aurten ere irtengo dira kalera. Aurrez bi entsegu dituzte egitekoak: bata atzo –hilak 22, ostegunazuten egitekoa, Alboka musika eskolan, 20:30ean, eta bestea urtarrilaren 29an egingo dute, leku eta ordu berean. Hain zuzen ere, atzoko entseguan zuten zehaztekoa noiz irtengo diren santa eskera: otsailaren 4an edo 7an. Normalean, bezpera egunez irten ohi dira, baina, aurtengorako, larunbatean irteteko aukera aztertzen ari ziren, jende gehiago batuko delakoan kanturako. Biltzen duten dirua, berriz, elkartasun proiektuetara bideratu izan dute orain arte, eta azkeneko bi urteetan Barranquillara (Kolonbia) bidali dute, Mireia Suarez moja ermuarraren bidez.



Pertsona bat santa eskean, Elgoibarko etxe atari batean. ASIER ORBEA

Elgoibarren lau santa eske

Elgoibarko Izarrak, Etxegiña taldekoek eta ikastetxeek eusten diote santa eskeari Elgoibarren. Hain zuzen ere, Elgoibarko Izarrak bi deialdi egin ditu aurten: Atxutxiamaika aisialdi taldeak otsailaren 1erako egin du dei, eta familian irtengo dira kantura. Familia-transmisioa ziurtatzeko ahaleginaren baitan antolatu dute santa eskea, eta Azkue auzoan ibiliko dira, baserriz baserri, trikitilariak eta pandero jotzaileak lagun hartuta. Eneko Beretxinaga eta Amaia Iturriotz izango dira koplariak. 10:00etan irtengo dira, Azkueko ermita paretik, eta, baserrietako lanak amaitu ondoren, mokadua egingo dute Lizagarren. Interesa dutenek urtarrilaren 29ra arte dute izena emateko: 943 74 17 46 edo atxutxiamaika.eus. Antolatzaileek zehaztu dute

HH-2 eta LH-3 arteko umeek helduren baten ardurapean hartu beharko dutela parte.

Elgoibarko Izarrakoen beste taldea, 1994a ezkerro baserriz baserri santa eskean ibili ohi dena, Santa Ageda bezperan irtengo da kantura. Bazkalostean elkartuko dira, Kalegoen plazan, 14:30ean, eta bi taldetan banatuta koplaturako dituzte gero Elgoibarko baserri-auzoak, 21:30 aldera arte. Koruetan parte hartzeko, izena eman behar da, eta urtarrilaren 30a da horretarako azken eguna. Hiru modu daude izena emateko: telefonoz bulegora deituta –943 74 16 26–, posta elektronikoz –elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus– eta aurrez aurre –Aita Agirre kulturegunea 3–.

Ikastetxeei dagokienez, Elgoibar Ikastolakoak otsailaren 4an irtengo dira kalera. 09:00etan,

ikastolako atarian egingo dute saiotxo bat lehenengo eta, gero, adinaren arabera banatuta, kalez kale ibiliko dira.

Etxegiña taldekoak dira hiru garren santa eskeko taldea. Otsailaren 7an irtengo dira kantura eta eskera. 09:00etan abiatuko dira, Bolatokitik, eta kalez kale ibiliko dira kantu-errondan. Aurrez, baina, bi entsegu-egun lotu dituzte, otsailaren 3rako eta 5erako. Kultur Etxeko hitzaldi gelan egingo dituzte entseguak, 20:00etan hasita. Elgoibarko Herri Eskolako LH5eko ikasleak Etxegiñaren taldera batuko dira, ohi legez.

Soraluzen, hiru talde hiru egunetan

Hiru talde irtengo dira santa eskean: baserrietakoa; Ezoziko Ama abesbatzak eta Diadar Txistulari Taldeak osatutakoa; eta musika eskolakoena. Otsailaren 3an egingo dute kalejira Musika eta Mugimendua eta Musika Kantuz ikasgaietako ikasleek, 5 urtetik DBHra artekoek. 18:00etan irtengo dira, San Ana kaletik, eta Plaza Zaharreko karparrainoko bidea egingo dute. Biharamunean, Santa Ageda bezperan, Ezoziko Ama abesbatzakoen eta Diadar Txistulari Taldekoen txanda izango da; 19:00etan irtengo dira kantura, eta herri erdiguneko kaleetan barrena ibiliko dira. Azkenik, otsailaren 7an, baserriz baserri ibiliko da beste talde bat, Julio Soto, Nerea Elustondo eta Eneko Beretxinaga bertsolariak koplari hartuta eta Unai Larreategik soinuarekin lagunduta. 35. aldia dute aurtengoa.

Deban, bezpera egunez

Otsailaren 4an irtengo dira santa eskean bi talde: batetik, Aitzuri abesbatzakoak; eta, bestetik, Luzaro ikastetxeak. Aitzuri abesbatzakoak 19:30ean abiatuko dira, musika eskolatik, eta kalez kale ibiliko dira kantuan eta eskean, trikitilarien laguntzarekin. Batutako dirua Amigos Solidarios gobernuz kanpoko erakundearentzat izango dela aurreratu dute. Luzaro

ikastetxeak, berriz, goiz eta arratsalde ibiliko dira kantuan. Goizean LH-6ko ikasleak Eguneke Zentrora joango dira, musikariekin batera, Agedaren omenezko koplak kantatzera, eta arratsaldean, 15:00etan irtengo dira kalera LH osoko ikasleak. Hiru geldialdi egingo dituzte kanturako: Berasaluze plazan, Plaza Zaharrean eta Foruen Plazan.

Mendaron, otsailaren 4an eta 7an

Mendaron otsailaren 7a izango dute kanturako eta eskerako eguna. Urtero legez, 08:30ean abiatuko dira, Herriko Enparantzatik, hiru taldetan banatuta: Sahatzu mendiko baserriak eta Azpilgoeta auzoa koplaturako dituzte; Aranerrek eta Garagartza aldea bigarrenak; eta Mendarozabal hirugarrenak. Talde bakoitzak bina koplari izango ditu; sei guztira: Beñat Lizaso, Inigo Zubiaurre *Beitxi*, Aitor Zubikarai, Amaia Agirre, Unai Mendizabal eta Txeber Altube. Ameikutz musika eskolako trikitilariak izango dituzte lagun, eta, lanak bukatu ondorenean, Aizpe gastronomia elkartearen bazkalduko dute denek elkarrekin. Antolatzaileek aurreratu dute Sendi Anaitasuna elkar-tearentzat eta Motxaila Elkar-tearentzat izango dela aurten batuko duten dirua.

Otsailaren 4an, bezpera egunez, irtengo dira eskola-umeak kantura, 10:00etan. Ospitalean hasiko dute ibilbidea, eta Azpilgoetara egingo dute handik. Eguneke Zentroan, Txokolategi parean, Haur Eskolan, Herriko Enparantzan eta Mendarozabalen geldialdiak egingo dituzte gero kanturako. Ikastolatik dei egin diete herritarrei parte hartzera, umeekin batera abestera.

Mallabian, otsailaren 7an

Otsailaren 7an irtengo dira santa eskean, Mallabian, Mendibil abesbatzaren deialdira batzen diren lagunak. Jubilatuen aurreko aparkalekuan elkartuko dira kanturakoak, petrilean, 10:00etan, eta honako ibilbide hau osatuko dute: Beranotxiki, Berano, Arandoño eta Goitia. Urtero moduan, batzen duten dirua abesbatzak egiten dituen kontzertu eta ekitaldiak finantzatzeko erabiliko dute.

IRAGARKI SAILKATUAK

LANA
ESKAINTZAK
Soraluze. Etxeko garbi-
ketak egiteko pertsona
bat behar da. %25eko
kontratua, goizez. Intere-
sa duenak 17:00-18:00
artean deitu dezake. 607
575 109

Elgoibar. Gizonezkoa lan
bila. Edozein lan egiteko
prest. Zaintza lanetan ere
egingo luke lan, orduka
edo etxeko langile mo-
duan. 614 84 02 07

ESKAERAK
Astean zehar goizetan
bederatzia arte eta arratsaldez,
haurrak eta adineko
pertsonek zaintzeko
edo etxeko garbiketarako
egiteko gertu. Neska ar-
duratsua naiz eta hiru arlo
horietan esperientzia dut.
Horrez gain, erizain lagunt-
zaile titulua dut eta Haur
Hezkuntzako graduak azken
mailako ikaslea naiz. Edozer
gauza dela, ez izan zalantzarik
nirekin harremanetan jartzeko.
664 29 58 71

ESKOLA PARTIKULA-

ESKAINTZAK
Eskola partikularrak
Elgoibarren. HHko ikas-
lea naiz eta euskarako C1
titulua daukat. LHko edo-
zein mailatako ikasleei
euskara edo laguntza
behar duten arloetan es-
kolak emateko prest nago,
baita arratsaldeetan
umeak zaintzeko ere.
Haurrekin lan egitea gus-
tuko dut, eta ikaskuntzan
laguntzeko motibazioa
dut. Kontakturako, hona
hemen nire zenbakia:
Pello, 688 67 69 68 / 688
67 69 68

Ikaskuntza zailtasunen
aurrean esku-hartzea
Haur Hezkuntzako eta
Lehen Hezkuntzako ira-
kaslea naiz. Entzumenean
eta mintzamenean espe-
zializatua. Gainera, logo-
pedia eta hizkuntza
nahasmen duetan ere
aditua naiz. Saio indibi-
dualizatuak eskaintzen
ditut ikaskuntza zailtasun
espezifikoak lantzeko
behar bereziak dituzten
haurrendako, metodologia
aktiboaren bitartez. Horrez
gain, haurrek euskarare-
kin harreman baikorra

sortzeko euskarazko
saioak ere eskaintzen
ditut eta azterketa ofizia-
lak lantzen ditut, HABeko
aztertzaillea bainaiz. Edo-
zein zalantza, deitu eta
galdetu lasai. Ane 684 14
95 54

ETXEBIZITZAK

EROSI
Soraluze. Baserrira erosi-
ko nuke Soraluzen edota
inguruan. Onintza. 630 72
17 58

ERRENTAN HARTZEKO
Alkilatze basarri bila
nabil Plazentzia, Osin-
txu... inguruetan. Hutsik
eta zahartuta dauan
basarri baten zaintza eta
ondo jartzeko tratua
egiteko prest be egon-
go nitzake. Nere inten-
ziñua basarri txukun
jarri eta bertatik bizitze-
ko apostua ibxia da, ortu
haundi bat jarritia lehe-
nengo, eta gerora, po-
sible bada, animaliak
baita. Oin momentuan
basarri batian bizi naiz,
San Pedro baillaran, eta
badakart basarrixa ma-
nejatzeko abilitadiaz.
Gaztiok basarri mundu-
ra juateko dakagun
zailtasuna kontuan
hartuta, eskertuko na-
ban laguntza apurtxo
bat. Asier. 688 64 27 61
/ 688 64 27 61

ANIMALIAK

OPARI
Txakurkumeak opari.
Ama border collie bat
duten txakurkume emeak
opari. 690 15 46 44


DENETARIK

SALDU
Haurren sehaskarako
lastaira eta izara jokoa
12 eurotan. 120 x 60 cm,
estreinatzeko. 696 40 30
96

Haurren lotarako zakua
15 eurotan. 120 x 60 cm,
hiru aldiz erabilia. 696 40
30 96

Mendiko Salomon botak
60 eurotan salgai. Neu-
rrria: 43-44. Behin baka-
rrik erabilia. Salomon Ex
Alp Mid Ltr Gtx Poseidon
modelo, Goretex eta
Ortholite plantillarekin.
696 40 30 96

ZORION AGURRAK



ERMUA
Naia
Zorionak, printzesa!
Disfrutatu zure egunaz
eta izan zoriontsu.
Maite zaitugu.



ELGOIBAR
Laia
Zorionak, Laia,
urtarrilaren 25ean bi
urte egingo dituzulako.
Muxu potolo bat
etxekoan partez.



ELGOIBAR
Julen
Zorionak, Julien! Gaur
9 urte beteko dituzu, beti
irribarre goxo horrekin.
Jarraitu orain arte bezala
gure bizitza pozten. Maite
zaitugu. Amaxo, aitaixo
eta Mikel.



SORALUZE
Amaia
Zorionak, Amaia!



SORALUZE
Urko
Zorionak etxeko guztien
partez!



SORALUZE
Ekain
Zorionak, maitea!
Onena merezi duzu!
Infinito eta bueltan
maite zaitugu! Aita,
ama eta Markel.



ELGOIBAR
Ihintza eta Alaia
Urtarrilaren 9an Ihintza 14 urte eta martitzenean
Alaia 7! Zorionak, bikote! Jarraitu beti bezain alai
eta jator. Muxu potolo bat familia guztiaren partez.
Gu, merendolarako prest!

Urte askotarako!

Zorion-agurra jartzeko, hiru bide:

- 'Barrena.eus'-en erabiltzailea sortu eta
barrena.eus/zorionagurrak helbidean
sartu.
- Mezua bidali herrietako erredakzioetara
edota Whatsappez 688 655 658
zenbakira, eta zehaztu izen-abizenak,
herria, urtebetetze-eguna eta testua.
- Etorri edo deitu gure betiko egoitzetako
batera.

Iragarkia jartzeko

943 744 112
barrena@barrena.eus
www.barrena.eus/sailkatuak

- Asteazkeneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera
uzterik ere.
- BARRENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen
operazioen erantzukizunik.
- Merkatu txikiko iragarkiak bi astez argitaratzen ditugu.



ROSA M^a
PINTADO

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net



AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
San Bartolome, 2

Gure etxepeko lehenengo pisuaren kanpo aldeko burdin-ertza babesten duen harriaren zati bat erori egin da. Harri pusketak behean aparkatuta zeuden auto batzuen gainera erori dira, eta kalteak eragin dituzte. Auto-jabeek komunitateari eskatu diote konponketa-
ren dirua, baina guk esan diegu lehenengo pisuko bizilagunari eskatu behar diotela. Jakin
nahi nuke kalte-ordain hori nork ordaindu behar duen.

Erori den harri pusketaren hori fatxadaren parte denez, izaera komuna dauka eta man-
tentze-lanak komunitateari dagozkio. Mantentze-lanak ez egin izana, beraz, komunita-
tearen ardura da. Hortaz, komunitateak egin behar dio aurre kalte-ordain horri, eta ez
lehenengo pisuko etxe-jabeak.

AHOLKUA: Egoera honetan garrantzitsuena ez da kalte materiala, baizik eta horrelako
egoeretan sortzen den arriskua. Eroritako harriek behetik pasatzen den edozein oinezko
harrapatu dezakete, eta horrek ondorio larriak eragingo lizkioke komunitateari; izan ere,
erruaren dimentsioa eragindako kalteen arabera neurtzen da. Gertatu denez eta berriz
gerta daitekeen ez dakigunez, komeni da fatxadaren egoera aztertzea, horrelako egoerak
ez daitezen errepikatu.

MENDARO

I. Urteurrena

Ana Mari Mallabiabarrena Pagate

2025eko urtarrilak 21ean hil zen, 79 urte zituela.



Zure irribarre eta erakutsitako indarrak egunero aurrera egiten laguntzen digu.

Asko maite zaitugu.

Gure bihotzean.

Etxekoak

ELGOIBAR

I. Urteurrena

Josefa Odria Barrenetxea

2025eko urtarrilaren 17an hil zen, 94 urte zituela.



Inoiz itzaliko ez den zeruko izarra bihurtu zara.

Beti gurekin, asko maite zaitugu.

Zure sendia

Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, domekan, urtarrilaren 25ean, 11:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi alde zaurretik eskerrak.

ELGOIBAR

Jose Maria Aguirrebeña Bergareche

2026ko urtarrilaren 7an hil zen, 84 urte zituela.



Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

ELGOIBAR

I. Urteurrena

Beñat Gutierrez Arrieta

2025eko urtarrilaren 22an hil zen, 38 urte zituela.



Zure taupadek zure musikan bizirik diraute.

Faltan botatzen zaitugu, bihotzez.

Zure kuadrilla eta lagunak

Barrena eskelak:

zabalkunde handiena Debarrenean

ESKELAK JARTZEKO:

943 744 112 - barrena@barrena.eus

Bulegoak:

DEBA: Ifar kalea, 12 - 943 191 383

ELGOIBAR: Aita Agirre plaza, 3 - 943 744 112

ERMUA: Erdikokale Zeharbidea, 2 - 943 179 350

SORALUZE: Errabal, 15 - 943 751 304



AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN EGUERDIRAKO.
943 74 41 12 / barrena@barrena.eus

OSTIRALA 23

- **SORALUZE** Porrotx eta Marimototsen 'Amazonia gara' Soraluzeko Udaleko Kultura Batzordeak antolatuta, Herri Antzokian, 17:00etan.
- **ELGOIBAR** Kafe-tertulia, Telmo Lazkanorekin Sakelako telefonoaren erabilerari buruzko saioa LH-5, LH-6 eta DBH-1eko gurasoentzat. Aita Agirre areto nagusian, 18:00etan.
- **ELGOIBAR** 'El peor espectáculo del mundo' antzerkia Herriko Antzokian, 19:00etan.
- **MENDARO** Kustomizazio eta grafiti tailerra Arropak, oihalak eta abar etxetik eraman behar dira. Mendaroko Gaztetxean, 19:00etan.
- **ITZIAR** 'Txillarreko sukaldaria' dokumentalaren emanaldia Kalebarreneko lokalean, 19:30ean.
- **ERMUA** 'Dulcinea' antzezlanaren Antzokian, 20:30ean.

- **ERMUA** 'Pulso', animalien argazki-erakusketa Lobiano Kulturgunean, 18:00-20:00.
- **SORALUZE** Josette Dacosta margolariaren erakusketa Oreka Art galerian, 19:00etan.

LARUNBATA 24

- **ERMUA** Zumaia-Deba ibilbidea Tren geltokian, 08:00etan.
- **SORALUZE** Landaketa (Baso Biziak) Landaketa eta landare exotikoen kontrol jardunaldia Gaztandolan egingo da, Sagar Erreka inguruan. Hitzordua GOL enpresaren aparkalekuan. 09:30ean.
- **DEBA** Kaldereroen desfilea prestatzeko dantza eta abestien entsegua Musika Eskolako dantza gelan, 11:00etan.
- **DEBA** Debako emakumezkoen binakako pala txapelketa herrikoia (gomazko pilota). Finala Aldats pilotalekuan, 11:30ean.

- **ERMUA** 'Pulso', animalien argazki-erakusketa Lobiano Kulturgunean, 18:00-20:00.
- **MENDARO** Daniel Juarez Quartet taldearen kontzertua San Agustin kulturgunean, 21:30en.

IGANDEA 25

- **ELGOIBAR** Mendi irteera, Intxortara Morkaiko mendizale elkarteak Intxortara irteera antolatu du herriko ikastetxeekin batera. 36ko gerrako lubakiak ikusteko aukera izango da ibilbidean zehar. Mintxetan, 09:30ean.
- **ERMUA** 'Pulso', animalien argazki-erakusketa Lobiano Kulturgunean, 18:00-20:00.

ASTELEHENA 26

- **ELGOIBAR** Eskuekin jarduteko sormen tailerra Askotariko arlo plastiko eta diziplinak landuko dira: collagea, collage-marrazkiak, oihalezko marrazkiak... Lilan, Elgoibarko Emakumeen Etxean, 17:30ean.
- **ERMUA** 'Pulso', animalien argazki-erakusketa Lobiano Kulturgunean, 18:00-20:00.

- **SORALUZE** Euskarazko irakurle taldea: 'Persepolis' Marjane Satrapiren (Iran, 1969) *Persepolis* eleberri grafikoa izango dute mintzagai. Liburutegian, 19:00etan.
- **SORALUZE** Josette Dacosta margolariaren erakusketa Doakoa. Oreka Art galerian, 19:00etan.

ASTEARTEA 27

- **ELGOIBAR** Desira sexu-aholkularitza zerbitzua Lila emakumeen etxean, 16:00etan.
- **SORALUZE** Munduko ipuinen ziklo herritarra: Andre Nunes da Costa Portugesez eta euskaraz kontatuko du ipuina eta Azoreetan eta Brasilen murgilduko ditu entzuleak. Liburutegian, 17:00etan.
- **ERMUA** 'Pulso', animalien argazki-erakusketa Lobiano Kulturgunean, 18:00-20:00.

ASTEAZKENA 28

- **ELGOIBAR** Elkarretaratzea 24/7 plataformak deituta, osasungintza



'Kike Turmix in memoriam'

URTARRILAK 24

- 11:00. Mahai-ingurua, Kultur Elkartean. Hizlariak: Margarita Gaffaro (Kike Turmixen alarguna), Jon Iturbe (musikaria), Eduardo Ranedo (musika-kritikaria), Mikel Berasategi (Jam aretoa / Riff Produksioak), Txema Vitoria (Kike Turmixen anaia). Gidaria: Nestor Sierra (*Coge el tren* podcasteko gidaria). *Kike Turmix y los pasapurés* diskoa salgai, Kultur Elkartean.
- 13:00. Binilo pintxada Arena tabernan. DJ: Three Chords Daddy eta Juxe.
- 15:00. Bazkaria Ozio-Bide elkartean.
- 17:00. Binilo pintxada Arena tabernan. DJ Le Rougarou eta Brain Squeezer.
- 20:00. Kontzertuak Gaztetxean. John Dealer and The Coconuts, Txakurrah, Eh Mertxe!, Bamms, The Hot Dogs eta Nuevo Catecismo Catolico.

baserriz baserri, kantuan eta eskean, otsailaren 4an

SANTA AGEDA BEZPERAN
ELGOIBARKO IZARRAREKIN

Arratsaldeko 14:30ean bilduko gara Kalegoen plazan,
eta bi taldetan banatu ondoren,
21:30ak arte jardungo dugu baserriz baserri kantuan eta eskean.

Urtarrilaren 31 izango da koruetan izena emateko azken eguna:
943 74 16 26 / elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus



Antolatzailea:



Laguntzaileak:



publiko duinaren alde elkarretaratzea egingo da. Anbulatorio aurrean, 12:00etan.

- **ERMUA 'Pulso', animalien argazki-erakusketa** Lobiano Kulturgunean, 18:00-20:00.
- **DEBA Irakurketa Kluba: 'Enarak' (Bernardo Atxaga)** Asier Serrano idazleak gidatuko du irakurketa saioa. Debako Ostolaza Udal Liburutegian, 19:00etan.

OSTEGUNA 29

- **ELGOIBAR** Jubilatuen Biltokiko batzar orokorra Elgoibarko Jubilatuen Biltokiak urteko batzar nagusia egingo du. Jubilatuen Biltokian, 17:00etan.
- **ELGOIBAR** Ongizate emozionala eta autozainketa ikastaroa Beharrezkoa da aurretik izena ematea: 688 698 143 / berdintasuna@elgoibar.eus. Lilan, 17:30etik 19:30era, Lilan
- **ERMUA** Santa Agedarako entsegua Alboka Musika Eskolan, 20:30ean.
- **ERMUA 'Pulso', animalien argazki-erakusketa** Lobiano Kulturgunean, 18:00-20:00.

OSTIRALA 30

- **ERMUA 'Pulso', animalien argazki-erakusketa** Lobiano Kulturgunean, 18:00-20:00.
- **ELGOIBAR** Zazpigarren arteari buruzko kafe-tertulia Loredi Salegik gidatuko du. Lila emakumeen etxean, 18:30ean.
- **SORALUZE** Josette Dacosta margolariaren erakusketa Oreaka Art galerian, 19:00etan.
- **DEBA** Euskal presoen eta iheslarien giza eskubideen aldeko mobilizazioa Foruen plazan, 19:30ean.
- **ERMUA 'El lenguaje de las flores' antzezlan** Loredi Salegik gidatuko du. Itxaropenen gaitik abiatuta, Lorcaren Doña Rosita la soltera antzezlan oinarri, aro digitaleko maitasunari buruzko gogoeta egiten du lanak. Sarrera: 10 euro. Antzokian, 20:30ean.

ZINEMA

DEBA

KULTUR ELKARTEA

'Buffalo Kids'
Igandea, 25: 16:30.

'Mi postre favorito'
Igandea, 25: 19:00.

EIBAR

COLISEO ANTZOKIA

'Abuela tremenda'
Igandea, 25: 17:00

'Song Sung Blue'
Larunbata, 24: 22:30
Igandea, 25: 20:00

Astelehena, 26: 19:30

'Rental family'
Larunbata, 24: 22:30
Igandea, 25: 17:00, 20:00

Astelehena, 26: 19:30

'Homo Argentum'
Astelehena, 26: 19:30

ELGOIBAR

HERRIKO ANTZOKIA

'La asistenta'
Larunbata, 24: 19:00, 22:15
Igandea, 25: 19:00
Astelehena, 26: 21:00

'Bob Esponja, una aventura pirata'
Igandea, 25: 16:30

'Father, mother, sister, brother' (Ongarri zinekluba)
Asteazkena, 28: 21:00

'Flores para Antonio'
Ostirala, 30: 19:00

ERMUA

ERMUA ANTZOKIA

'Frontera'
Larunbata, 24: 19:30
Astelehena, 26: 20:30

'Rondallas'
Larunbata, 24: 22:00
Igandea, 25: 19:30

'200% wolf'
Igandea, 25: 17:00

'Aro berria' (Zine-kluba)
Osteguna, 29: 20:30

MENDARO

SAN AGUSTIN KULTURGUNEA

'Barrakudaren altxorra'
Igandea, 25: 17:00



Rondallas pelikulako zuzendaria eta aktoreak.

GUARDIAKO FARMAZIAK

23 BARIKUA Soto / A. Zalduegi / I. Lecumberri

24 ZAPATUA Garitaonandia / A. Zalduegi / M.I. Ugarte / A. Alcalá*

25 DOMEKA Garitaonandia / A. Zalduegi / A. Alcalá

26 ASTELEHENA Arriola / L. Apraiz / M.I. Ugarte

27 MARTITZENA Fernandez / L. Apraiz / A.M. Baz

28 EGUAZTENA Yudego / L. Apraiz / A. Alcalá

29 EGUENA Oruesagasti / L. Apraiz / I. Lecumberri

30 BARIKUA Barrenetxea / Lasuen-Elezgaray / A. Alcalá

*09:00-13:30

2026ko botika ordutegiak, astelehenetik ostiralera:

Deba-Mutriku: 09:00-13:45 / 16:30-19:30

Elgoibar-Mendaro-Soraluze: 09:00-13:00 / 16:00-20:00

Ermua-Mallabia: 09:00-13:30 / 16:30-20:00

Guardiak, egunez: 09:00-22:00

Guardiak, gauez: 22:00-09:00

Guardiak, larunbatak:

Elgoibar-Mendaro-Soraluze: 09:00-14:00

Deba: 09:30-13:00

Ermua-Mallabia: 09:00-13:30

Guardia eguneko igandeak eta jaiegunak: Deba-Mutriku: 11:00-13:00

Itziarko botikina, astelehenetik ostiralera: 09:00-12:30

Egunero: Elortza (Juan Gisasola, 18-Eibar. 943 206 100)

FARMAZIAK

Deba: A. Zalduegi (Lersundi, 20 - 669 26 22 01)

Deba: H. Burgoa (Astillero, 2 - 667 33 88 90)

Elgoibar: Arriola (Santa Ana, 1- 943 74 01 40)

Elgoibar: Barrenetxea (Errosario, 26 - 943 74 12 77)

Elgoibar: Garitaonandia (Uparitzaga, 5 - 943 74 11 77)

Elgoibar: Yudego (San Frantzisko, 18 - 943 74 12 93)

Ermua: A.M. Baz (Zearkale 2 - 943 03 17 03)

Ermua: M. Alves (Gipuzkoa etorbidea, 46 - 943 17 26 66)

Ermua: A. Alcalá (Zubiaurre, 29 - 943 17 17 54)

Ermua: I. Lecumberri (Zubiaurre, 9 - 943 17 00 97)

Ermua: M^a Ugarte (Goienkale, 11 - 943 17 05 26)

Mallabia: E. Arronategi (Mallazpi z/g - 943 17 24 14)

Mendaro: Fernandez (Herriko Enparantza, 4 Garagartza - 943 75 61 42)

Mutriku: Lasuen-Elezgaray (Txurruka Tenienteak, 3 - 626 61 13 92)

Mutriku: L. Apraiz (Erdiko kalea, 5 - 630 05 50 97)

Soraluze: Soto (Rekalde, 1 - 943 75 16 38)

Soraluze: Oruesagasti (Kalebarren, 9 - 943 75 13 84)

Zure produktu edo zerbitzuak ezagutarazi nahi?

Ipini publizitatea Barrena astekarian edota Barrena.eus webgunean

publi@barrena.eus | 688 76 96 57



11.500 ale astero +120.000 bisita hilean

AZKEN BERBA

#TBT #2016



ARKAITZ
URANGA
ITZULTZAILEA

Iragan asteotan sare sozialetan osteratxo bat egin duenak honezkero zalantzan jarri izango du behin edo behin 2026an edo 2016an sartu garen. Urte berriko bizpahiru aste besterik ez dugu behar izan konturatzeko 2016a duela 10 urte izan zela; ene bada! Horrela josi dira esfera digitaleko zirrikitu guztiak urte hartako argazki bildumekin.

"Denok erromantizatzen dugu iragana neurri batean edo bestean"

Urte berriak ekarri digun mugarri esanguratsu honen aurrean -10 urte!-, iruditzen zait nabarmen zabaltzen ari dela nostalgia kolektibo bat. Jendeak aparteko goxotasunarekin begiratzen dio garai hari, dena hobea zen usteak hartuta. Noski, denok erromantizatzen dugu iragana, neurri batean edo bestean, baina joera erreakzionario eta faxisten gorakada aldi honetan, ez zait iruditzen nostalgia kolektiboaren karta jokatzeko momentua denik.

Nostalgia ideia erreakzionarioen gizarteratze eta zabalkunderako ezinbesteko tresna da; iragana erabat idealizatu eta orainaldiarekiko ikuspegia baldintzatzen du. Erosotasuna bilatzen du jada ezagutzen dugun horretan, eta beldurrez margotzen du hortik aldentzen dena. Beraz, begiratu ditzagun gure Snapchat-eko argazkiak eta entzun ditzagun *Work*, *Sorry* eta *Into You*, baina ez dezagun iparra galdu.

BUKATZEKO

Kristobal Kolon, soraluzetarra? Paco Vargasen teoria dokumentatuak dio baietz

'Colón Vizcaíno' liburuko iturriak egiazkoak direla baieztatu dute



Jesus Galarraga eta Ana Eizmendi, ikerketa lana eskuetan dutela. EGOITZ UNAMUNO

Egoitz Unamuno Loidi SORALUZE Mendeetan zehar, Kristobal Kolonen jatorria munduko enigma historiko handienetako bat izan da. Genovakoa zela dioen bertsio ofizialaren aurrean, hamaika teoria sortu dira, eta horietako bat da Francisco Melendez Polok, *Paco Vargas* izengoitiz ezagunagoa zenak, *Colón Vizcaíno de Paco Vargas* liburuan planteatu zuena; alegia, Kolon soraluzetarra zela. Jesus Galarraga *Malmero*-k (Soraluze, 1959), Ana Eizmendi Lazcanok (Zarautz, 1955) lagunduta, sakon aztertu du Vargasen liburua eta ondorioak argitaratu ditu *Anexos al Colón Vizcaíno* liburu digitalean.

Teoria dokumentatua

1936ko uztailaren 11n, Espainian gerra piztu baino hiru egun lehenago, Paco Vargas historiagileak *Colón Vizcaíno* izeneko liburua inprimarazi zuen Salamancan; 330 orrialdeko liburu mardula. Bertan, defendatu zuen Kristobal Kolon jatorriz Soraluzekoa zela; zehazki, Salonazpi baserrikoa, eta haren benetako izena Cristobal Maistegui Larriategui Salgoen Lascurain zela. Teoria hura defendatzeko hainbat datu eta argudio eman zituen; tartean, 137 hitz edo toponimo, Kolonen egunkarietan aurkitu zituenak eta Vargasen ustez euskal jatorrikoak zirenak. Adibidez: *Amona* -uharte baten izena-, *Buruqueya* -sumendi batena- eta *Veragoas* -beherago urak zituen leku bati erreferentzia egiten ziona-. Bes-

tetik, Vargasek planteatu zuen Kolonen aita Domingo Maistegui izan zela, leinuen gerrako buruzagia eta Elorrioren hil zutena. Vargasen arabera, Cristobalen amak, Juana Larreategui, erre-presalien beldurrez, bere jatorria ezkutatzeko eskatu zion semeari. Horren harira, Vargasek aipatzen du bi mende geroago euren burua Kolonen oinordeko gisa aurkeztu zuten Veraguako dukeen auzia, zeinetan argudiatu zuten lotura zutela Elorrioko Larreategui familiarekin -jatorriz Soraluzekoak-, frogatzeko odol garbia eta euren hidalgo izaera.

Egiatzko iturriak

Galarragak azaldu duenez, egin duten ikerketaren helburu nagusia ez da izan Vargasen teoria baieztatzea, baizik eta jakitea liburuan aipatzen dituen iturriak egiazkoak ziren edo ez.

Historialariak egiaztatu dituen datuen artean dago Vargasek liburuan aipatzen duen Elorrioko bitore edo goraipamen idatzia, zeinetan jartzen zuen *Diego Colón de Larreategui*. Vargasek gaztetan ezagutu zuen hori, eta inskripzio hori Kolonen jatorri gipuzkoararen frogatzat hartzen du. Bada, Galarragak eta Eizmendik egiaztatu dutenez, Elorrioko Zearsolo jauregiaren atzealdeko horman izen horixe dago idatzita 1675etik. Vargasek liburuan aipatzen duen eta ikerlariak egiaztatu duten beste datua Veraguako dukeen ingurukoa da. Paco Vargasek dio euren



Ikerketa liburuaren azala. 'SORAPEDIA.EUS'

burua Kolonen oinordeko gisa aurkeztu zuten Veraguako dukeen Larreategui abizena zutela, jatorriz Soraluzekoa dena. Ikerlariak baieztatu duenez, 1787an, Mariano Colón Larreategui izeneko gizon batek auzia irabazi zuen duke izateko, eta frogatu zuen Kolonen ondorengo legitimoa zela, eta gaur egun ere Larreategui abizena Veraguako dukeen abizenen artean ageri da (Ikus Wikipedia). Bestetik, Vargasek liburuan kontatu zuen Cristobal 14 urterekin Getarian ontziratu zela, *Algarbes* izeneko itsasontzi portugaldar batean, eta, Galarragak eta Eizmendik egiaztatu dutenez, XV. mendean Portugalgo itsasontziak ohikoak ziren Getarian, harreman komertzialak zirela eta.

Datu horien eta beste dozenaka daturen jatorria aztertu ostean, ikerlariak atera duten ondorioa argia da: "*Colón Vizcaíno* liburuan aipatzen diren datuen iturriak existitzen dira, benetakoak dira".

Teoriaren egiazkotasunaz

Vargasen teoriaren egiazkotasunaz galdetuta, Jesus Galarragak eta Ana Eizmendik diote konklusio hori irakurle bakoitzak atera behar duela, baina teoria horrek merezi duela "gutxienez gainerako beste edozein teoriari aitoritzen zaion besteko sinesgarritasuna eta errespetua". "Vargasek ez zuen teoria hau sozietateko afari baten ondoren asmatu; sekulako dokumentazio lana egin zuen gaur egun ohikoak

baina garai hartan oso ezohikoak ziren ikerketa-metodoak erabili. Kontsultatu zituen Bartolome de las Casasen, Fernando Kolonen eta halako pertsonen jatorrizko dokumentuak, eta aurkitu zituen datu guztiak zehaztasun handiz jaso zituen liburuan". Galarragaren eta Eizmendiren ustez, "miresgarria eta harrigarria da gizon hark egin zuen ikerketa lana. Orain, gainera, badakigu erabili zituen iturriak benetakoak direla, ez zuela ezer asmatu". Historialarien esanetan, Paco Vargas, "aristokrata eta abertzale sutsua izateaz gain, eruditua" izan zen, eta hala baieztatzen dute bere garaian lagun izan zituen hainbat pertsona ezagunen idatziek ere; esaterako, Aitzol apaiz euskaltzalearenak.

Galarragak bota du sententzia: "Guretzat garrantzitsuena ez da Kolon nongoa zen, baizik eta Paco Vargasek Soraluzeri zion maitasunagatik egin zuen lana. Ziur nago liburua beste garai batean argitaratu izan balitz oihartzun handiagoa izango zukeela, baina gerrak liburua ahanzturara kondenatu zuen".

Nor zen Paco Vargas?

Ikerketari esker jakin dutenez, Francisco Melendez y Polo *Paco Vargas* Palentzian jaio zen, 1864an, eta 3 urterekin Soraluzera joan zen bizitzera, haren aita *Euscal-duna* arma-fabrika zaharreko zuzendari izendatu zutenean. Haurtzaroa Soraluzen igaro zuen eta euskaldundu egin zen. Ondoren, Vigora ezkondu zen eta han trenetako auditore lan egin zuen, eta hantxe, Galizian, ondu zuen *Colón Vizcaíno* liburua. Urte luzez Galizian bizi izan zen arren, bere burua beti *Hidalgo de Soraluze* gisa aurkeztu zuen, eta 1939an, hil ostean, izengoiti hori jarri zioten argitaratu zioten eskelan.

"Miresgarria eta harrigarria da gizon hark egin zuen ikerketa lana"

"Ziur nago liburua beste garai batean argitaratu izan balitz oihartzun handiagoa izango zukeela"